



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko abenduaren 29an

32 ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Castejonen ziklo konbinatuko zentral termiko bat paratzeko udalez gaindiko proiektu sektorialaren hasierako onespenerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- “Bulegoentzako dirulaguntzak” programaren betetze-egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- “Laguntzak, plastikoak erretzeko eta kalte gutxiago eragiten dituzten pestizidak erabiltzeko” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- “Ohiz kanpoko kalteak, nekazaritza-aseguruek estali gabeko egitura eta laboreetan” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- “Kontserbagintza-sektorean enpresei dagozkien antolamendu-egiturak sartzeko artikulazioa” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- “Nekazaritza ustategien eraginkortasuna hobetzea (FEOGA-O)” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- “Burgaixotasuna izan, beren kasa moldatzeko zailtasun larria izan eta behar larrian daudenentzat egoitza eraikitzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- “4.000 eta 40.000 biztanle arteko udalen egoera ekonomikoa eta finantzieroa” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- “Zenbait udali, aplikatutako gastuarekin ponderaturiko biztanleak izeneko aldagarriaren konpentsazio gisa” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- “Errege Bardearen Batzordearekin hitzarmena. Egoitza berrirako ezohiko ekarpena” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- “Transferentziak Montepio Orokorreko toki entitateei, beraien finantziatorako” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- “Transferentziak Iruña, Tafalla eta Tuterako Udalei, beraien funtzionarioen montepioak finantzatzearren” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15 or.).
- “Transferentzia arruntetarako fondo orokorra” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

- “Ingurugiro-hezkuntzarako programetarako eta ingurugiroarekin zerikusia duten beste jarduera batzuentzako dirulaguntzak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- “Azterlan eta lan teknikoak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- “Naturguneak zaintzea eta habitatak hobetzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- “Hiriko ingurugiroari buruzko ikerlan eta lanak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- “Ibaiak bideratzea eta defentsak jartzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- “Naturguneak babesteko hitzarmena (Ezkaba mendia eta beste batzuk)” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- “Udal plangintzarako dirulaguntza” programaren betetze-egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Pasiboan udal araubidea Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Joko aretoak arautzen duen erregelamenduari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- “Fondo galdurako dirulaguntzak industri segurtasun arloan” programaren betetze-egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Belateko tuneleko azken jarduketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Itoizko urtegiko hegietak batean lerrokadurak izateko arriskuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Zozaiia-Legasa bideuneko obrei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Sunbillako bigarren faseko obrei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- “Lurzorua eta etxebizitza eskuratu eta sustatzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- “Abelbideak hobetzea” programaren betetze-egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- “Dirulaguntzak eta jarduketak” programaren betetze-egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- A-15 autopista pribatizatzeako asmoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- “Sustapen eta Garapen Atala” entitateari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- “Langabetuen orientazioa eta garapena” programari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren entitate laguntzailei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Obren III. Ataleko buruaren kargu uzteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- N-121 errepidean dagoen Tafallako gasolindegirako sarbidearen obrei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).

F saila:
GALDERAK

Castejonen ziklo konbinatuko zentral termiko bat paratzeko udalez gairiko proiektu sektorialaren hasierako onespenerari buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Francisco Javier Sanz Carramiñana foru parlamentario jaunak Castejonen ziklo konbinatuko zentral termiko bat paratzeko udalez gairiko proiektu sektorialaren hasierako onespenerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Francisco Javier Sanz Carramiñana foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Castejonen ziklo konbinatuko zentral termiko bat paratzeko udalez gairiko proiektu sektorialaren hasierako onespenerari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak, 1999ko uztailaren 6an eginiko bilkuran, erabaki zuen Castejonen ziklo konbinatuko zentral termiko bat paratzeko proiektua (Iberdrola, S.A. enpresak sustatua) udalez gairiko proiektu sektorial deklaratzeko, uztailaren 4ko Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legean ezarritako ondorio-etarako. Halaber, erabaki zuen espedientearen jendaurrean jartzea hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aitzina, eta aldi berean audientzia ematea toki entitateei, hain zuzen, udalaz gairiko proiektu sektorialaren xede diren azpiegiturek beren udal barrutiak ukitzen dituztenei.

Nafarroako Gobernuaren erabaki hori, alegia, Castejonen zentral termiko bat egiteko proiektua (Iberdrolak sustatua) udalaz gairiko proiektu sektorial deklaratzeko, Nafarroako Aldizkari Ofizia-

lean (1999ko abuztuaren 16ko 102. zk.a) argitaratu zen eta besteak beste, Castejoneko Udalari jakinarazi zitzaion.

Espedienteko datuetan agerienez, 1999ko irailaren 1eko sarrera eguna duen alegazio-idatzi bat aurkeztu zen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan. Aipatu idatzi hori Francisco Javier Sanz Carramiñana jaunak izenpetu zuen, Castejoneko Udaleko alkate udalburu gisa eta toki entitate horren izenean, Castejoneko Udaleko 1999ko abuztuaren 27ko osoko bilkurak hartutako erabakiak eman zizkion ahalmenak erabiliz.

Bestetik eta aldi berean, Francisco Javier Sanz Carramiñana jaunak, Parlamentuko Sozialisten Taldeko foru parlamentarioa ere izaki, Foru Parlamentuko Erregistro Orokorrean irailaren 15eko sarrera eguna duen idatzia aurkeztu du; beraz, aurretik aipatutako espedientearen jendaurreko epea bukatu baino lehenagokoa da. Interesgarria da egin dituen galdera horiei erantzutea, nahiz eta egoera ez dela egokia esan daitekeen.

Nafarroako Gobernuak jarraitu dituen irizpideak deklarazio hori egiteko, alegia, Castejonen ziklo konbinatuko zentral termiko bat paratzeko proiektua (Iberdrola, S.A. enpresak sustatua) udalez gairiko proiektu sektorial deklaratzeko, lehen aipatutako 1999ko uztailaren 16ko erabakian zehazten dira (1999ko abuztuaren 16ko NAO). Eta horixe da Nafarroako Gobernuak orain arte egin duen administrazio egintza bakarra espediente horri dagokionez.

Erabaki horren edukia Castejoneko Udalari jakinarazi zitzaion. Bestalde, agerikoa da Sanz Carramiñana jaunak ezagutzen duela eduki hori, behintzat Castejoneko alkate udalburua den aldetik, lehen esan bezala haren aurkako alegazioak aurkeztu baitzituen. Beste kontu bat da, eta hala ondoriozta daiteke egin duen galdera irakurritik, foru parlamentario den aldetik erabaki horren edu-

kia ez ezagutzea bere osotasunean, bere garaian argitaratu bazen ere. Beraz, argitaratua dagoena berriz ez errepikatzeko, eskatzen diogu galderaren erantzuna jakiteko, 1999ko abuztuaren 16ko Nafarroako Aldizkari Ofizialeko 102. zenbakira jo dezala, hor argitaratu baitzen Nafarroako Gobernuaren erabakia, Castejonen ziklo konbinatuko zentral termiko bat paratzeko proiektua (Iberdrola, S.A. enpresak sustatua) udalez gaindiko proiektu sektorial deklaratzeko duena.

Aurretikoa esanda ere, eta jakin nahi duena erraztearren, Iberdrolaren jabetzako lurzuria aurreikusitako azpiegitureko lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzeko erabilitako irizpideei buruzko lehenengo galdera horri erantzuteko, erabakiko lerroalderik adierazgarrienak transkribatuko ditugu:

“Hirigintza planeamenduko ukipenari dagokionez, Castejonen indarra duten arau subsidiarioek nekazaritza edo abeltzaintzako produktibitate ertaineko lurzoru urbanizaezintzat jotzen dute zentralak okupaturiko lurzoruak. Lurzoru kategoria horretarako babes araubideak, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeari jarraikiz, instalazio mota hori onartzen du. Linea elektrikoarentzat aurreikusitako pasabidea Castejon eta Tuterako udalerrietatik pasatzen da. Oihan lurzoru urbanizaezinak, nekazaritzako produktibitate handikoak eta nekazaritza edo abeltzaintzako produktibitate ertainekoak zeharkatzen ditu. Horietan baimentzen ahal diren eraikuntza jarduerak azpiegiturek dira. Udalez gaindiko Proiektu Sektorialean agertzen diren zehaztapenek udal planeamendua lotzen dute, zein lehenengo berrikuspen edo aldaketan egokitu egin beharko baita; horren proposamena da azpiegitura bat duen lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzea, dokumentu hau onetsi ondoren.”

“...Kasu honetan kontuan hartu behar den lurzoru kategorizazioa, udal planeamendura eramateko, berariazko ukipenen aurreikusitako azpiegituren lurzoruak da, zeinetan jarduera baimengarriak baitira, indarra duen legeriaren arabera, eremu horretan aurreikusitako azpiegitura edo instalazioa egiteko obrak eta horren exekuzio, mantentze eta zerbitzurako beharrezkoak diren eraikuntza eta instalazioak. Hala badagokio, udal planeamendua, berrikuspenera egitean, bertan baden azpiegitura gisa kategorizatu ahalko ditu lur horiek, instalazioa exekutatu bada.”

“Nolanahi ere, hemen azaldutakoaz aparte, instalazioa planeamenduko aurreikuspenekin

bateragarria dela uste da, ez baitituzte babestu beharreko lurzorutzat hartzen lur horiek.”

Castejoneko Udalak aurkeztutako alegazioei eta horiek ebazteko erabili diren lege- eta egokitasun-irizpideei dagokienez, hona zer ezartzen duen Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen “Prestatu eta onesteko prozedura” (udalaz gaindiko plan eta proiektuei sektorialeko buruz) izeneko 65. artikulua bere 1. d) eta 1.e) idatz-zatietan:

“d) Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro Departamentuak alegazioak bildu eta aztertu dituelarik, Lurraldearen Antolamenduko Batzordearen txostenpean jarriko da.”

“e) Nafarroako Gobernuak, Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro kontseilariak hala proposaturik, onestea erabakiko du, bidezko bada, eta zilegi izanen du antolamendua hobea izateko behar diren neurri zuzentzaileak finkatzea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean oneste erabakia argitaratzeko baldintza bezala jartzea agiriak tramitazioan jaso dituen aldaketak biltzen dituen testu bat aurkeztea.”

Gai horri buruz esan behar da, espedientearen jendaurrean egon den epearen barruan (irailaren 16an bukatua) aurkeztutako alegazioak ez dituela bildu eta aztertu Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro Departamentuak, eta ezta Lurraldearen Antolamendu Batzordeak txostenpean jarri ere.

Beraz, arestian aipatutako d) idatz-zatian zehazten den prozedura fasea ez denez burutu, aditzera eman behar dizugu Nafarroako Gobernuak ezin izan duela e) idatz-zatiko erabaki hori hartu. Erabaki horretan, besteak beste, aurkeztutako alegazioak ebatzi beharko dira; horien artean Castejoneko Udalarenak. Beraz, oraingoz ezinezkoa da alegazio horiek ebazteko zein lege- eta egokitasun-irizpide jarraitu diren adieraztea. Bestalde, irizpide horiek Nafarroako Gobernuak espedientearen onesteko hartuko duen erabakian zehaztuko dira, eta hori Castejoneko Udalari behar bezala jakinaraziko zaio eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 1999ko urriaren 13an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

“Bulegoentzako dirulaguntzak” programaren betetze-egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak “Bulegoentzako dirulaguntzak” programaren betetze-egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 30eko 6 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Jose María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Bulegoentzako dirulaguntzak programa

(11440 kodea)” izeneko lerroaren betetze-mailari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Ez. 2000. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorren zirriborroan galderako lerroaren baliokidea den beste lerro bat zehazten da. Finantzabide hori beharrezkoa da egoitza parkearen eragin errehabilitatzailea herritarrengana eta lurraldera hurbiltzen duelako, izapidaketak arinduz eta errehabilitazioaren kalitatea handiagotuz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1999ko urriaren 13an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

“Laguntzak, plastikoak erretzeko eta kalte gutxiago eragiten dituzten pestizidak erabiltzeko” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak “Laguntzak, plastikoak erretzeko eta kalte gutxiago eragiten dituzten pestizidak erabiltzeko” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Laguntzak, plastikoak erretzeko eta kalte gutxiago eragiten dituzten pestizidak erabiltzeko” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Ingurugiro Departamentuarekin eta baita UCAN eta ITG Agricolarekin beharrezko kontsultak egin ondoren, argitara eman zen 1999ko ekainaren 14ko Foru Agindua, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak emana (1999ko uztailaren 19ko 89. NAO). Foru agindu horrek Nafarroako nekazaritzan eta abeltzaintzan erabiltzen diren plastikozko hondakinen bilketa bultzatzen du, eta bere garaian eta aurretiaz Parlamentuko zure taldeak baiezkota eman zion.

Foru agindu horretan xedatutakoari jarraikiz, ezarritako ekintzen kudeaketan parte hartzen

duten erakunde edo entitateak hauek dira: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua, UCAN eta mankomunitateak.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzean (1999ko irailaren 20a) 12 espediente jaso dira eta dirulaguntza, guztira 4.200.000 pezetakoa izan da.

Momentu honetan, dirulaguntzen ordainketa burututako ekintzak egiaztatzen dituzten ziurtagiriak aurkeztearen baldintzapean dago.

Hona hemen dirulaguntza eskatzen duten entitateen zerrenda eta zer jardueratarako eskatzen duten:

Orvalaiz	Txanpinoien plastikoak biltzea
SAT el Juncar	Baratzeetako plastikoak biltzea
Agrícola San Isidro	Baratzeetako plastikoak biltzea
Cooperativa de Artajona	Zainzurien plastikoak biltzea
La Unión (Larraga)	Zainzurien plastikoak biltzea
SAT Sierra (Azkoien)	Baratzeetako plastikoak biltzea
Cooperativa El Arga	Zainzurien plastikoak biltzea
Cooperativa Valdevilloco	Zainzurien plastikoak biltzea
Cooperativa el Saso	Zainzurien plastikoak biltzea
SAT ENURTA (Jaurrieta)	Abeltzaintzako plastikoak biltzea
Cooperativa	
San Isidro de Arroniz	Zainzurien plastikoak biltzea
Cooperativa Loquiz (Murieta)	Zainzurien plastikoak biltzea

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1999ko urriaren 8an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

“Ohiz kanpoko kalteak, nekazaritza-aseguruek estali gabeko egitura eta laboreetan” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak “Ohiz kanpoko kalteak, nekazaritza-aseguruek estali gabeko egitura eta laboreetan” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Ohiz kanpoko kalteak, nekazaritza-aseguruek estali gabeko egitura eta laboreetan” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Aurrekontuko kontusailaren aplikazioa martxoaren 15eko 79/1999 Foru Dekretuaren bidez arautu da. Foru dekretu horrek euriteek eta uholdeek nekazaritzan erabiltzen diren azpiegitura publikoetan eragindako kalteei aurre egiteko laguntzak

ezartzen ditu, eta Parlamentuko zure taldeak onetsi zuen.

Aipatutako kontusailetik 1998ko irailaren 23ko bi eskaera izapidatu, ebatzi eta ordaindu dira, dekretu horren xedapen iragankorrari helduz. Bertan, Nafarroako Parlamentuko ebazpena jasotzen zen, 1998ko urriaren 21ean egindako bilkuran Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak onetsitakoa. Bi eskaera horiei emandako dirulaguntza, guztira 3.470.053 pezetakoa da.

1999ko irailaren 13ko ekaitzak nekazaritza azpiegituretan kalteak eragin ditu Nafarroa erdialdean, batez ere Zangoza eta Tafallako merinda-deetan.

Ezarritako epearen barruan eskabideak aurkeztu dituzte Oibar, Galipentzu, Leatxe, Ledea, Zare, Eslaba, Ezporogi, Lerga, Barasoain, Garinoain, Pitillas eta Artaxoako udalek, bai eta Beireko Ureztatzaileen Elkartek ere.

Kalteen balorazioa egiten ari da dagokion dirulaguntza zehazteko asmoz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua xedatutakoa betez.

Iruñean, 1999ko urriaren 8an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

“Kontserbagintza-sektorean enpresei dagozkien antolamendu-egiturak sartzeko artikulazioa” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak “Kontserbagintza-sektorean enpresei dagozkien antolamendu-egiturak sartzeko artikulazioa” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratien Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Kontserbagintza-sektorean enpresei

dagozkien antolamendu-egiturak sartzeko artikulazioa” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Aurrekontuko lerro horren xedea da kontserba begetalen elkarte baten eta San Adrianen dagoen Centro Tecnológico del Valle del Ebroren arteko eginkizunen bereizketa bultzatzea; horrela gainerako enpresak zentro horretan barneratzea erraztuko da. Bada, xede hori lortu da.

Gaur egun, egindako gastuen ordainagiriak jasotzea falta da eta ondoren, dirulaguntzak ordainduko dira.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1999ko urriaren 6an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

“Nekazaritza ustiategien eraginkortasuna hobetzea (FEOGA-O)” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak “Nekazaritza ustiategien eraginkortasuna hobetzea (FEOGA-O)” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratien Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera

egin du “Nekazaritza ustiategien eraginkortasuna hobetzea (Feoga-O)” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

1.- Buruturiko jardueren zerrrenda eta ordaindutako zenbatekoak.

Aurreko urteetako hitzarmenen erreserbatik ordaindutakoa	1.012.910.968 pezeta
1999an onetsitako ordainketak	376.502.032 pezeta
Aurreko urteetako hitzarmenen erreserbatik ordaintzeke	193.898.896 pezeta
Ordaintzeke, 1999an (korrituen hobaria)	61.933.099 pezeta
Baimendutakoa, guztira	1.645.244.995 pezeta
Baimentzeke	254.255.005 pezeta

2.- 1999an sustatutako jardueren zerrenda eta hitzartutako zenbatekoak.

Hona hemen 1999an aurkeztutako espedienteen zerrenda eta horiei gauzatutako ordainketak (aurreko puntuan zehazten da guztizko zenbatekoa) eta datozen ekitaldietarako hitzartutakoak:

Hobekuntza planak: 596 espediente - 3.078.090.510 pezeta, inbertsioa - 1.839.769.844 pezeta, mailegua - 271.936.985 pezeta, korrituetarako dirulaguntza (1999an ordaintzeko) - 808.179.330 pezeta, zuzeneko dirulaguntza, 2000 urtean ordaintzekoa eta 6.280.184 pezeta, zuzeneko dirulaguntza, 2001 urtean ordaintzekoa.

Lehenengo instalazioa: 80 espediente - 481.371.673 pezeta, inbertsioa - 266.686.319 pezeta, mailegua - 32.778.198 pezeta, korrituetarako dirulaguntza (1999an ordaintzeko) - 95.562.149 pezeta, zuzeneko dirulaguntza (1999an ordaintzeko) - 95.562.146 pezeta, zuzeneko dirulaguntza, 2000 urtean ordaintzeko.

Lurzatien berrantolamendua: 17 espediente - 15.685.615 pezeta, inbertsioa - 7.058.525 pezeta, zuzeneko dirulaguntza (1999an ordaintzeko).

Kontabilitatea: 7 espediente - 425.250 pezeta, zuzeneko dirulaguntza (1999an ordaintzeko).

Olibondo eta elorri beltza: 7 espediente - 39.673.636 pezeta, inbertsioa - 10.570.421 pezeta, zuzeneko dirulaguntza (1999. urtea).

Zerbitzuak elkartzea: 6 espediente - 1.010.712 pezeta, inbertsioa - 1.010.712 pezeta, zuzeneko dirulaguntza (1999. urtea).

Lanbide prestakuntza: 101 espediente - 10.000.000 pezeta, zuzeneko dirulaguntza (1999. urtea).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Iruñean, 1999ko urriaren 6an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

“Burugaixotasuna izan, beren kasa moldatzeko zailtasun larria izan eta behar larrian daudenentzat egoitza eraikitzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak “Burugaixotasuna izan, beren kasa moldatzeko zailtasun larria izan eta behar larrian daudenentzat egoitza eraikitzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikaren Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 5.000.000 pezetako “Burugaixotasuna izan, beren kasa moldatzeko zailtasun larria izan

eta behar larrian daudenentzat egoitza eraikitzea” izeneko 33201-8 aurrekontu-lerroari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta ondorengoei jarraikiz:

1.- Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2.- 1999an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1999ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak aditzera eman duenez, aurreikusita dago, eta hala Hermanas Hospitalarias-ekin negoziaketetan dabilta, entitate horrek kudeatzea datozen hilabete hauetan adimen gaixotasun kronikoak dituztenentzako babes-egoitza edota pisu funtzional bat. Beronen plaza kopurua, kokapena eta kudeaketa plana datozen asteotan zehaztuko da, eta beharrezkoa

da entitate horri dirulaguntzak ematea, gaur egun dauden instalazioak eta bere jabetzapekoak ego-kitu eta hornitzeko egin behar dituen inbertsioetarako, bitarteko berri hori lortzearen.

Zentzu horretan, zerbitzu horren kudeaketaren hitzarmena egiteko akordio batera iritsiz gero eta inbertsioaren beharrak zehaztuz gero, pentsatzea litzateke Foru Parlamentuari proposatzea beharrezkoa den aurrekontuaren aldaketa, 50.000.000 pezeta horiekin inbertsiorako dirula-

guntza ahalbidetzeko. Kasu horretan Nafarroako Gobernuarekin zerikusirik ez duen zentro batean egingo litzateke eta aurreikusita dago obrak datozen hiru edo lau hilabeteotan luzatzea.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 1999ko urriaren 11n

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

“4.000 eta 40.000 biztanle arteko udalen egoera ekonomikoa eta finantzieroa” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak “4.000 eta 40.000 biztanle arteko udalen egoera ekonomikoa eta finantzieroa” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “4.000 eta 40.000 biztanle arteko udalen egoera ekonomikoa eta finantzieroa” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz. Hona Toki Administrazio kontseilariaren erantzuna:

Abenduaren 30eko 21/1998 Foru Legeak, 1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorei buruzkoak, bere hogeitazortzigarren xedapen gehigarrian zenbait aldaketa egiten dizkio abenduaren 30eko 23/1997 Foru Legeari. Azken honek, Toki Ogasunek Nafarroako zergetan duten partehartze fondoaren zenbatekoa eta banaketarako formula ezartzen ditu, 1998 eta 1999ko ekitaldietako aurrekontuetarako.

“Beste laguntzak” izeneko idatz-zatian 670.000.000 pezetako zuzkidura gehitu da 4.001

eta 40.000 arteko biztanle kopurua duten udalerrietzat, finantza eraginkortasun gisa.

Zuzkidura hori, Legeak agintzen duen bezala, 1999. urtean 4.001 eta 40.000 arteko biztanle kopurua duten udalen artean banatuko da, beren biztanleriaren proportzioan, 1,08ko alderantziko balioarekin haztatua 4.001 eta 10.000 arteko udalerrietzat eta 1,3koarekin 10.001 eta 40.000 arteko biztanleko udalerrietzat. Zuzkidura aipatutako 23/1997 Foru Legearen 8. artikuluan zehaztutakoari jarraikiz ordainduko da.

Ekainaren 25eko 150/1999 Foru Agindua, Toki Administrazio kontseilariak emanak, udalek eta kontzejuek 1999ko ekitaldian zehar jaso beharreko kopuruak finkatzen ditu, transferentzia arrunt gisa eta Nafarroako Zergetan Toki Ogasunek duten partehartze fondoaren kargura. Zenbateko horiek behin-behinekoak dira, ez baitzegoen 1999ko urtarrilaren 1eko biztanleriaren kopuru ofizialik kalkulua egiteko orduan. Beraz, behin-behineko banaketa egin da 1998ko urtarrilaren 1eko biztanleriaren kopuru ofizialak erabiliz.

INEk irailaren 22ko egunez bidalitako agirian dioenez, 2000. urte hasiera arte ez da 1999ko urtarrilaren 1eko biztanleriaren kopuru ofizialik eskuratzen ahal. Beraz, momentu honetan 150/1999 Foru Aginduaren erabilitako irizpide juridiko berberekin, behin-behineko banaketa egin da eskura ditugun biztanleriaren azken kopuru ofizialak erabiliz, alegia, 1998ko urtarrilaren 1eko erroldaren berrikuspenetik ondorioztatutako biztanleria kopuru osoak. Behin-behineko banaketa hau berrikusi eta behin betiko bilakatuko da 1999ko urtarrilaren 1ari dagozkion kopuruak eskuratzen

direnean, 1999ko Nafarroako Aurrekontu Oroko-
rrei buruzko 21/1998 Foru Legearen hogeita zor-
tzigarren xedapen gehigarriari jarraikiz.

Udalerrriak, behin-behineko banaketa horren
arabera:

UDAL. ZK.	KONTZE. ZK.	HERRIA	BANAKETA 4001-40000
10	0	ALTSASU	32.063.397
16	0	ANTSOAIN	27.462.525
50	0	BAZTAN	35.271.704
60	0	BURLATA	60.032.756
72	0	CINTRUÉNIGO	24.943.118
77	0	CORELLA	29.425.892
97	0	LIZARRA	47.445.560
157	0	LODOSA	20.908.129
202	0	AZKOIEN	21.085.275

215	0	SAN ADRIAN	24.328.028
216	0	ZANGOZA	20.765.429
227	0	TAFALLA	38.455.409
232	0	TUTERA	102.911.890
258	0	ATARRABIA	41.033.865
901	0	BARAÑAIN	76.394.142
903	0	BERRIOZAR	24.657.716
907	0	ZIZUR NAGUSIA	42.815.165
GUZTIRA			670.000.000

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-
mentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta
ondokoetan xedatutakoari jarraikiz.

Iruñean, 1999ko urriaren 18an

Toki Administrazioiko kontseilaria: Rafael
Gurrea Induráin

“Zenbait udali, aplikatutako gastuarekin ponderaturiko biztanleak izene- ko aldagarriaren konpentsazio gisa” aurrekontu-lerroaren betetze- mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan
ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru
parlamentario jaunak “Zenbait udali, aplikatutako
gastuarekin ponderaturiko biztanleak izeneko
aldagarriaren konpentsazio gisa” aurrekontu-lerro-
aren betetze-mailari buruz egindako galderaren
erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin
agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5
zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-
an argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parla-
mentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru
parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera
egin du “Zenbait udali, aplikatutako gastuarekin
ponderaturiko biztanleak izeneko aldagarriaren
konpentsazio gisa” izeneko 10302-7 aurrekontu-
lerroaren betetze-mailari buruz. Hona Toki Admi-
nistratioiko kontseilariaren erantzuna:

Abenduaren 30eko 21/1998 Foru Legeak,
1999. ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Oroko-
rrei buruzkoak, bere hogeita zortzigarren xedapen
gehigarrian zenbait aldaketa egiten dizkio aben-
duaren 30eko 23/1997 Foru Legeari. Azken
honek, Toki Ogasunek Nafarroako tributueta-
n duten partehartze-fondoa 1998 eta 1999ko aurre-
kontu ekitaldietarako banatzeko zenbatekoa eta
formula ezartzen ditu.

“Beste laguntzak” izeneko idatz-zatian
163.329.798 pezetako zuzkidura gehitu da, zen-
bait udali, aplikatutako gastuarekin ponderaturiko
biztanleak izeneko aldagarriaren konpentsazio
gisa.

Zuzkidura hori, Legeak agintzen duen bezala,
1999. urtean 4.001 eta 10.000 arteko biztanle
kopurua duten udalen artean banatuko da, beren
biztanleriaren proportzio zuzenean. Zuzkidura
aipatutako 23/1997 Foru Legearen 8. artikuluan
zehaztutakoari jarraikiz ordainduko da.

Ekainaren 25eko 150/1999 Foru Aginduak,
Toki Administrazioiko kontseilariak emanak, udalek
eta kontzejuek 1999ko ekitaldian zehar jaso beha-
rreko kopuruak finkatzen ditu, transferentzia
arunt gisa eta Nafarroako tributueta Toki Oga-

sunek duten partehartze-fondoaren kargura. Zerbateko horiek behin-behinekoak dira, ez baitzegoen 1999ko urtarrilaren 1eko biztanleriaren kopuru ofizialik kalkulua egiteko orduan. Beraz, behin-behineko banaketa egin da 1998ko urtarrilaren 1eko biztanleriaren kopuru ofizialak erabiliz.

INEk irailaren 22ko egunez bidalitako agirian dioenez, 2000. urte hasiera arte ez da 1999ko urtarrilaren 1eko biztanleriaren kopuru ofizialik eskuratzen ahal. Beraz, momentu honetan 150/1999 Foru Aginduaren erabilitako irizpide juridiko berberekin, behin-behineko banaketa egin da eskura ditugun biztanleriaren azken kopuru ofizialak erabiliz, alegia, 1998ko urtarrilaren 1eko erroldaren berrikuspenetik ondorioztatutako biztanleria kopuru osoak. Behin-behineko banaketa hau berrikusi eta behin betiko bilakatuko da 1999ko urtarrilaren 1ari dagozkion kopuruak eskuratzen direnean, 1999ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 21/1998 Foru Legearen hogeita zortzigarren xedapen gehigarriari jarraikiz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta ondokoei jarraikiz.

Iruñean, 1999ko urriaren 18an

Toki Administrazioiko kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

99ko banaketa-4.000 eta 10.000 biztanleen arteko udalak

UDAL. ZK.	KONTZE. ZK.	HERRIA	BANAKETA 4001-10000
10	0	ALTSASU	15.189.403
16	0	ANTSOAIN	13.009.313
50	0	BAZTAN	16.708.991
72	0	CINTRUENIGO	11.817.818
77	0	CORELLA	13.939.629
157	0	LODOSA	9.905.382
202	0	AZKOIEN	9.989.564
215	0	SAN ADRIAN	11.526.420
216	0	ZANGOZA	9.838.468
258	0	ATARRABIA	19.439.501
903	0	BERRIOZAR	11.681.832
907	0	ZIZUR NAGUSIA	20.283.477
GUZTIRA			163.329.798

“Errege Bardearen Batzordearekin hitzarmena. Egoitza berrirako ezohiko ekarpena” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak “Errege Bardearen Batzordearekin hitzarmena. Egoitza berrirako ezohiko ekarpena” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Errege Bardearen Batzordearekin hitzarmena. Egoitza berrirako ezohiko ekarpena” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

1.- Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

Toki Administrazioako Departamentuaren eta Errege Bardearen Batzordearen artean hitzarmenaren eduki eta formari buruzko akordioa lortu ondoren, bi aldeek izapidaketak hasi dituzte onetsi eta formaliza dadin.

Toki Administrazioako Departamentuko kontseilariak hitzarmenaren testua onetsi zuen, irailaren 16ko 417/1999 Foru Aginduaren bidez, haren tramitazioaren agiriak osatu ondoren.

Errege Bardearen Batzordeak hitzarmena sinatzeko beharrezkoa zuen Komunitatearen Batzorde Nagusiak berrestea bere lehendakariak duen ordezkaritza. Baldintza hori ordea, ez da 1999ko urriaren 13a arte bete.

Horren guztiaren ondorioz, Errege Bardearen Batzordearen egoitza berrirako ezohiko ekarpena egiteko hitzarmena 1999ko urriaren 13an sinatu eta formalizatu dute bi aldeek.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoari jarraikiz.

Iruñean, 1999ko urriaren 18an

Toki Administrazioako kontseilaria: Rafael Gurra Induráin

“Transferentziak Montepio Orokorreko toki entitateei, beraien finantziatorako” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak “Transferentziak Montepio Orokorreko toki entitateei, beraien finantziatorako” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Transferentziak Montepio Orokorreko toki entitateei, beraien finantziatorako” izeneko 10140-7 lerroaren betetze-mailari buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Abenduaren 30eko 21/1998 Foru Legeak, 1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzkoak, bere 23. artikuluan xedatzen du Nafarroako Gobernuak 917.392.000 pezeta emanen dituela Udal Funtzionarioen Montepio Oroko-

rraren partaide diren Nafarroako toki entitateetako funtzionarioen pentsioak finantzatzeko.

Kopuru hori banatuko da Montepioko kudeaketak 1998an sortutako kostuen derraman udal bakoitzari esleitutako kuotaren proportzioan.

Otsailaren 23ko 127/1999 Ebazpenak (1999ko apirilaren 5eko 41. zk.ko NAO), Toki Administrazioako zuzendari nagusiak emanak, Nafarroako Udal Funtzionarioen Montepioko defizita (1998. urtekoa) onetsi zuen, bai eta toki entitateen arteko banaketa ere.

Eransten den zerrendan udal bakoitzari dagoen dirulaguntza zehazten da. Dirulaguntza hori udal bakoitzari esleitutako kostuaren proportzioan egin da, aipatutako Aurrekontuei buruzko Foru Legeak, 1999ko ekainaren 25eko 538/1999 Ebazpenak bermatutakoak, manatzen duenari jarraikiz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutako betez.

Iruñean, 1999ko urriaren 18an

Toki Administrazioako kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

(Oharra: Aipatutako zerrenda foru parlamentarioen eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

“Transferentziak Iruña, Tafalla eta Tuterako Udalei, beraien funtzionarioen montepioak finantzatzearren” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak “Transferentziak Iruña, Tafalla eta Tuterako Udalei, beraien funtzionarioen montepioak finantzatzearren” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Transferentziak Iruña, Tafalla eta Tuterako Udalei, beraien funtzionarioen montepioak finantzatzearren” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Abenduaren 30eko 21/1998 Foru Legeak, 1999ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, bere 23. artikuluan xedatzen du Nafarroako Gobernuak 497.362.000 pezeta banatuko dituela Iruña, Tuterako eta Tafallako Udalen artean, 1998ko ekitaldian euren montepioen kudeaketak sortutako kostuei aurre egiteko.

Banaketa hori egin ahal izateko aipatutako Udal horiek egiaztagiri bat aurkeztu dute Departamentuan erretiro, alarguntza eta zurtasun pentsioek sortutako kostu hauekin:

–Iruña		1.802.016.667
Erretiroko pentsioak	1.213.454.391	
Montepioko pentsioak	588.562.276	
–Tutera		215.172.334
Udal montepioko pentsioak	215.172.334	
–Tafalla		89.256.089
Erretiroko pentsioak	54.412.811	
Alarguntza-pentsioak	26.207.410	
Zurtasun-pentsioak	8.635.868	

Aurrekontuan zehaztutako 497.362.000 pezetak udal bakoitzaren kostuen arabera proportzionalki banatuz, bakoitzari dagokion kopurua zehaztu eta ordaindu da, 1999ko uztailearen 15ean Toki Administrazioako kontseilariak emandako 188/1999 Foru Aginduari jarraikiz. Hona hemen Iruñeko, Tuterako eta Tafallako Udalei, hurrenez hurren, emandako dirulaguntzak: 425.482.068 pezeta, 50.805.285 pezeta eta 21.074.647 pezeta.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoari jarraikiz.

Iruñean, 1999ko urriaren 18an

Toki Administrazioako kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

“Transferentzia arruntetarako fondo orokorra” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak “Transferentzia arruntetarako fondo orokorra” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Transferentzia arruntetarako fondo orokorra” izeneko 10280-2 aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Abenduaren 31ko 23/1997 Foru Legeak, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan duten partehartze-fondoa 1998ko eta 1999ko aurrekontu ekitaldietarako banatzeko zenbatekoa eta formula ezartzen dituenak, bere 4, 5 eta 6. artikuluetan aipatutako fondo hori banatzeko irizpideak ezartzen ditu, eta eranskinean 1998 eta 1999ko ekitaldietarako erabili beharreko aldagaiak zehazten dira.

Hauek dira 1999ko ekitaldirako aipatutako aldagaiak:

Biztanleria	1999-01-01 errolda
Biztaleriaren aldaketa (10 urte)	1989-99 errolda
Entitate kopurua	1996 errolda
Biztanleria sakabanatua	1996 errolda
Biztanleria 16 urte	1999-01-01 errolda
Biztanleria 65 urte	1999-01-01 errolda
Langabetu kopurua	1998. urtea
Hiri lurzoru garbiaren hedadura	1999-01-01 datuak
Esfortzu fiskala	
- kitatutako dirusarrerak	1997. urtea
- merkatuko balioa	

- katastroko balioa

Herrilurren katastroko balioa 1999-01-01 datuak

Aldagai horiei dagokienez, ondoko zehaztapenak egin behar dira:

1.-Biztanleriaren aldagaiari dagokionez:

1999-01-01eko errolda gaurko egunean oraindik argitaratu gabe dago, beraz 1998-01-01eko biztanleria erabili da.

2.-Biztanleriaren aldaketa (10 urte) aldagaiari dagokionez:

Arestian aipatutako arrazoi beragatik 1988-1998 erroldako ezberdintasuna erabili da.

3.-Biztanleria 16 urte, eta 65 urte aldagaiari dagokionez:

Kasu horretan 1998-01-01eko biztanleriaren piramidea ere ez da ezaguna, beraz, kalkulua 1996ko maiatzaren 1eko erroldaren azken berrikuspenari dagozkion kopuruekin egin da.

4.-Esfortzu fiskalari dagokionez:

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) 1997. urtean ezarri zen eta bere kudeaketan arazo asko sortu ziren. Honek guztiak ekarri du 1997ko kontuen ixteetako kopuruak fidagarriak ez izatea, eta beraz, erabaki da udal bakoitzari eskatzea 1997ko urteari dagozkion kitatutako eskubi-deen egiaztagiria, kontabilizazio urtea eta bere gutxieneko kuotak edozein direlarik ere.

Aldagai horren kalkulua JEZa alde batera utziz egin da, baina 4. ordainketa egiterakoan gehituko da.

Horren guztiaren ondorioz entitate bakoitzaren urteko esleipen osoaren kalkulua, 3. ordainketa (uztaila) egiteko beharrezkoa dena, behin-behinekoa izan da.

Ekainaren 25eko 150/1999 Foru Aginduak, Toki Administrazioako kontseilariak emanak (uztailaren 30eko 95. zk.ko NAO), udalek eta kontzejuek 1999ko ekitaldian zehar jaso beharreko behin-behineko kopuruak zehazten ditu, transferentzia arrunt gisa eta toki ogasunek Nafarroako tributuetan duten partehartze-fondoaren kargura.

Ordainketei dagokienez, aipatutako 23/1997 Foru Legearen 8. artikulua ezartzen du fondoaren kopuruaren ordainketa ekitaldi bakoitzean 4

zatitan eginen dela, hain zuzen hiruhileko natural bakoitzaren lehen hamabostaldian. Lehenengo bi ordainketak bat etorriko dira aurreko ekitaldian osotara jasotakoaren % 25arekin, eta hirugarren ordainketan aurreko biak esleipenaren % 75 lortu arte osatuko dituen kopurua ordainduko da.

Horrenbestez, lehenengo bi ordainketak, bakoitza, 3.866.116.077 pezetakoak izan dira (15.464.464.000 pezetaren % 25, 1998ko fondoa

izan zena) eta hirugarrena, 4.291.445.228 pezetakoa. Modu horretan 1999ko zuzkiduraren % 75 lortzen da.

Hori guztia jakinarazi dizut.

Iruñean, 1999ko urriaren 18an

Toki Administrazioiko kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

“Ingurugiro-hezkuntzarako programetarako eta ingurugiroarekin zerikusia duten beste jarduera batzuentzako dirulaguntzak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak “Ingurugiro-hezkuntzarako programetarako eta ingurugiroarekin zerikusia duten beste jarduera batzuentzako dirulaguntzak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Ingurugiro-hezkuntzarako programetarako eta ingurugiroarekin zerikusia duten beste jarduera batzuentzako dirulaguntzak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

Maiatzaren 13ko 0577/1999 Foru Aginduaren eranskina eta ekainaren 23ko 1599/1999 Ebazpenaren eranskina.

2.- 1999an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1999ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Uztailaren 12ko 1759/1999 Ebazpenaren eranskina.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko irailaren 24an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

(Oharra: Aipatu eranskinak foru parlamentarioen eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

“Azterlan eta lan teknikoak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak “Azterlan eta lan teknikoak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 30.000.000 pezetako “Azterlan eta lan teknikoak” izeneko kontusailari buruz -11820-2 aurrekontu-lerroa-. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2.- 1999an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1999ko Aurrekontuaren araberako hitzartutako zenbatekoa.

JARDUERAK	AURREKON. 99	GASTUA
Industrietako hondakin urak kontrolatzeko programari dagozkion azterketak.	2.754.360	1.323.067
Laginak hartzea aurreko programarako.	6.429.093	3.097.792
Ibaien indize biotikoen kontrol sarea.	4.772.000	2.386.000
Zenbait azterketa.	1.486.675	1.486.675
Inguruneke kalteen ebaluaziorako laguntza teknikoa.	937.026	937.026
Inguruneke kalteen azterketak, lurzatieen berrantolamendua.	1.476.000	1.476.000
Inguruneke kalteen azterketak, linea elektrikoak.	960.150	960.150
Bestelakoak.	523.018	523.018
	19.338.322	12.189.728

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko urriaren 11an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

“Naturguneak zaintzea eta habitatak hobetzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak “Naturguneak zaintzea eta habitatak hobetzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 100.000.000 pezetako “Naturaguneak zaintzea eta habitatak hobetzea” izeneko kontusailari buruz -1970-5 lerroa-. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jardura bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2.- 1999an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1999ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

JARDUERA	AURR. 99	BURUT. GASTUA
ZENBAIT FAKTURA (Garbiketak: Bertiz, Urbasa, Regata Marín, Las Cañas...)	1.621.261	1.621.261
ZENBAIT NATURGUNEREN MANTENIMENDUA (BERTIZ, RADA...)	39.163.151	0
DONE JAKUERAKO BIDEA BERRESKURATZEA (

I. ERANSKINA : PLAKAK, SEINALEAK...)	2.033.944	0
UREDERRA-PULGUER: MANTENTZE ETA ZAINTEZ LANAK	3.410.000	0
URBASA-ANDIA: MANTENTZE LANAK	26.258.870	0
DONE JAKUERAKO BIDEA BERRESKURATZEA (III. ERANSKINA: BIDEAREN ZOLAKETA)	12.788.928	0
DONE JAKUERAKO BIDEA BERRESKURATZEA (III. ERANSKINA: GARBIKETAK)	3.598.320	0
DONE JAKUERAKO BIDEA BERRESKURATZEA (IV. ERANSKINA: UREZTATZEA, ZABOR BILKETA)	2.518.329	0
BATUKETA	91.392.803	1.621.261

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko urriaren 11an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

“Hiriko ingurugiroari buruzko ikerlan eta lanak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak “Hiriko ingurugiroari buruzko ikerlan eta lanak” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 50.000.000 pezetako “Hiriko ingurugiroari

buruzko ikerlan eta lanak” izeneko kontusailari buruz -12010-0 lerroa-. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.-Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jardura bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

Empresen aldibaterako batasunaren bigarren egiaztagiria (GEE. associats S.A, EIN, S.L.), ingurugiro auditoretzak egitearena eta 21 Toki Agenden hasierarena (Iruña, Cintruénigo eta Tafallan), 25.750.000 pezetatan.

2.-1999an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1999ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Ingurugiro auditoretzak eta 21 Toki Agendak Barañain, Burlatan eta Tuteran hastea,

21.230.000 pezetatan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko urriaren 11an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

“Ibaiak bideratzea eta defentsak jartzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak “Ibaiak bideratzea eta defentsak jartzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikaren Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 100.000.000 pezetako “Ibaiak bideratzea eta defentsak jartzea” izeneko kontusailari buruz –93030-6 lerroa—. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

31000-7600-5121 kontusailaren (93030-6 lerroa) ibaiak bideratzeko eta defentsak jartzeko obretarako emandako 100.000.000 pezetako kopurua honela banatzen da:

1. Argako Ibai-Parkearen hitzarmena zabaltzea Egues, Ezkabarte eta Zizur Nagusiko udaletara, 6.000.000 pezetako kostuarekin.

2. Kopuru osagarria, “ibaiak dragatzeko aurre-rapenak” izeneko aurrekontuko kontusailarekin, 12170-0 lerroa dirulaguntzetarako, 15.000.000 pezetakoa.

3. Ibaiak lehengoratzeko dirulaguntzak: 79.000.000 pezeta.

Aipatutako jarduera guztiak egiten ari dira eta 1999. urtean zehar ordainduko dira obra burutu dela frogatzen duen egiaztagiria aurkeztuta.

2.- 1999an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1999ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

1999an zehar sustatutako jarduerak hauek dira:

1. ERREZU: Ubagua ibaiaren ertzak birlandatu eta egonkortzea, 6.694.289 pezetako aurrekontuarekin.

2. BERTIZARANA: Narbarteko harri-lubeta berritzea, 1.145.596 pezetako aurrekontuarekin.

3. ZUGARRAMURDI: Guertegui erretena dragatu eta garbitzea, 2.751.462 pezetako aurrekontuarekin.

4. CINTRUENIGO: Alhama ibaia lehengoratzeko, bigarren fasea, 7.081.754 pezetako aurrekontuarekin.

5. LOS ARCOS: Odrón ibaia dragatu eta garbitzea, 10.612.025 pezetako aurrekontuarekin.

6. ARROITZ: Beortigako troka berritzea, 5.138.838 pezetako aurrekontuarekin.

7. ARGUEDAS: Limaseko troka garbitu eta berritzea, 11.439.736 pezetako aurrekontuarekin.

8. MAÑERU: Morea troka garbitu eta berritzea, 1.396.806 pezetako aurrekontuarekin.

9. VILLATUERTA: Iranzu ibaia garbitu eta egokitzea, 3.682.486 pezetako aurrekontuarekin.

10. LODOSA: Ebro ibaiaren ingurunea berreskuratzea El Ferial alderdian, 15.849.873 pezetako aurrekontuarekin.

11. PUIU: Cidacos ibaiaren ingurugiroa egokitzea eta ibaia garbitzea, 6.907.937 pezetako aurrekontuarekin.

12. LIZARRA: Bearin erretena lehengoratzea, 1.543.833 pezetako aurrekontuarekin.

13. BETELU: Araxes ibaia bideratzeko harresia berreraikitzea, 4.121.954 pezetako aurrekontuarekin.

14. Argako Ibai-Parkearen hitzarmena zabaltea Egues, Ezkabarte eta Zizur Handiko udaletara, 6.000.000 pezetako aurrekontuarekin.

15. Nafarroako zenbait herritan ibai eta trokak dragatu eta garbitzea, 15.000.000 pezetako aurrekontuarekin.

Kopuru horiek guztiak 1999rako aurrekontuan hitzartuta daude eta 1999ko urtean zehar kitatuko dira, abendua baino lehen eta obra burutu denaren egiaztagiria aurkeztu ondoren.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko irailaren 28an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

“Naturguneak babesteko hitzarmena (Ezkaba mendia eta beste batzuk)” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak “Naturguneak babesteko hitzarmena (Ezkaba mendia eta beste batzuk)” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 125.000.000 pezetako “Naturguneak babesteko hitzarmena (Ezkaba mendia eta beste batzuk)” izeneko kontusailari buruz –12120-3 lerroa—. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2.- 1999an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1999ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

JARDUERA	AURRE.- 99	EGIN. GASTUA
URTE-ANITZETAKO HITZARMENA, ARG ABAIA. 1999. URTEA	8.750.000	0
EZKABAKO BASOA LEHENGORATZEA	16.274.300	0
EZKABA EGOKITZEA ETA LANDAKETA LINEALAK	7.841.419	5.958.503
ARALARKO BATASUNA LANKIDETZA AKORDIOA	2.070.832	971.442
RN. PITILLAS.LAGUNTZA. BEHATOKIAREN KUDEAKETA	5.404.923	2.702.462
URBASA-ANDIA ETA ARALAR ZAINZEA	11.986.414	6.129.525
956/99 F.A., ORGUI JOSTETA EREMUA KUDEATZEA (LIZASOKO KONTZEJUA)	10.000.000	3.665.719
1842/99-E., INFORMAZIOA, ZAINKETA ETA GARBIKETA IRATIN	4.336.416	0
1843/99-E., IRATI OHIANA-AEZOAREKIN LANKIDETZA	2.920.756	0
957/99 F.A., EDER PARTZUERGOA, ARGUEDASEKO HARRERA ZENTROA	3.500.000	1.400.000
GUZTIRA	73.085.060	20.827.651

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko urriaren 11an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

“Udal plangintzarako dirulaguntza” programaren betetze-egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak “Udal plangintzarako dirulaguntza” programaren betetze-egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 30eko 6 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeko José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du udal hirigintza planeamenduari emandako dirulaguntzen gaineko zenbait aferei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Ez. 2000. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorren zirriborroak galdetzaileari interesatzen zaion lerroaren baliokide bat dakar.

2.- Gaurko egunean 62 herrik ez du udal guztia hartzen duen hirigintzari buruzko planeamendu orokorrik, hala ere horietako zenbait kontzejuez osatuta daude, eta horiek badute indarrean dagoen planeamendurik. Planeamendu horiek Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legea, udalei hirigintzako eskumenak eman zizkiena, indarrean jarri baino lehenagokoak dira. Aipatutako kopuru hori behar bezala baloratzeko, esan beharra dago, gaur egun, planeamendurik gabeko udalen biztanleriak % 4 osatzen duela. Beraz, Nafarroako biztanleriaren % 96 udal planeamendu orokorra duen udalerriren batean bizi da.

Hona hemen gaur egun udal mailako planeamendu orokorrik ez duten herrien zerrenda eta biztanleak (1998-01-01ean):

AGUILAR KODESKOA	108
AMESKOABARREN	827
ARANARATXE	91
ARAS	228
ARELLANO	205
ARIA	68

ARTAZU	84
ATETZ	208
BERTIZARANA	637
CABREDO	128
GAZTELUBERRI	27
EGUES	1546
NOÁIN (ELORTZIBAR)	3879
ERRO	797
EULATE	404
EZKURRA	252
EZPOROGI	65
GALAR	1066
GALOZE	120
GARAIOA	131
GENEVILLA	127
GOÑI	201
GORZA	78
GESALATZ	474
GIRGILLAO	76
IGÚZKITZA	342
ITZALTZU	50
TXULAPAIN	464
BEINTZA-LABAIEN	300
LANA	219
LAPOBLACION	176
LARRAGOA	159
LARRAUN	1099
ELIZAGORRIA	236
LEGARDA	76
LEOTZ	265
LIZOAIN	237
LONGIDA	294
MARAÑÓN	72
MENDAZA	379
METAUTEN	296
MORENTIN	111
MUÉS	110
NABASKOZE	220
ODIETA	334
OLORITZ	169
OLTZA	1311

OLLO	355	URRAULGOITI	154
ORISOAIN	93	DEIERRI	1486
ERROMANTZATUA	162	ZABALTZA	150
ORREAGA	31	ZUGARRAMURDI	239
SALDIAS	155		
JAITZ	108	Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla- mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.	
SAN MARTIN UNX	486	Iruñean, 1999ko urriaren 19an	
SARTZE	83		
SORLADA	51	Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros	
TIEBAS-MURU ARTEDERRETA	582		
TORRALBA DEL RÍO	152		

Pasiboen udal araubidea Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak Pasiboen udal araubidea Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 30eko 6 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeko José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Udal Montepioak Gizarte Segurantzako Sistemari barneratzeko egin dituen ekimenei buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako udalek duten zamarik handienetakoa montepioena da.

Hala da bai. Montepioa Nafarroako udaletako gastu publikoan zama handia da. Dena den, egoera hori leuntzen ari da sektore mailako neurriak aplikatzearekin; hala nola: langile berriak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean barneratzea, finantzaketarako zuzkidura handiagoak Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik eta baita toki entitate-

etako aurrekontuen handiagotzea (ehunekotan, Montepioak aitortzen dituen eskubideen gorakada baino handiagoa).

2.- Zer ekimen burutu ditu Toki Administrazio-ko Departamentuak pasiboen udal araubidea Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartzearren?

Toki Administrazio-ko Departamentuak, berez, ez du inolako ekimenik burutu. Lehendakaritza, Justizi eta Barne Departamentuari dagokio hori, horrek baititu eskumenak funtzio publikoari dagokion guztiaren antolamendu eta arauen garapenerako.

3.- Zer harreman izan ditu Gizarte Segurantzarekin? Zein da aurreikusitako egutegia?

Nafarroako Foru Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren esku utzi zuen Nafarroako udal montepioen sistema Gizarte Segurantzako Sistemari barneratzeko beharrezko jarduketa eta ekimenak burutzea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren bitartez.

1997. urtean prestatutako txostenean Nafarroako udal montepioen sistemak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean barneratu ahal izateko zer baldintza zituen aztertu eta analizatu zen. Horrela jakin ahal izan zen udal montepioen egoera orokorra zein zen, bestalde ere ezinbestekoa zena Gizarte Segurantzarekin harremanetan jarri baino lehen.

Txosten horretan ondorioztatzen zenez, integrazio hori ongi burutzeko, beharrezkoa zen azterketa eguneratua eta zorrotza egitea udal montepioen sistemak, zuen egiturarekin, epe luzera zer-nolako finantza eta ekonomia garapen izanen zuen aurreikusteko. Ondoren, Gizarte Segurantzaren barneratzeak epe luzera izan zezakeen kostu ekonomikoarekin konparatu ahal izanen zen.

1998. urtean zehar Lan eta Gizarte Aferen Ministerioarekin lehen harremanak izan ziren, Nafarroako administrazio publikoen montepioak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean barneratzeko aukera aztertu ahal izateko. Harreman horien ondorioz, Gizarte Segurantza eta Foru Administrazioa datuak elkartrukatzen hasi ziren barneratze horren kostua zenbatekoa izan zitekeen ikusteko.

Gizarte Segurantzako Zuzendaritza Nagusiak azterketa bat egin zuen Nafarroako administrazio publikoen montepioak Gizarte Segurantzaren barneratzeak izanen zuen kostuaren gainean. Iruñeko Udaleko montepioa azterketatik kanpo geratu

zen, baina horri buruzkoak azaldu dizkio Foru Administrazio honi.

Egun, Gizarte Segurantzako Zuzendaritza Nagusiak egindako azterketaren edukia eta aurreikusitako kostua aztertzen ari dira, Nafarroako Gobernuak berori baloratzeko beharrezko elementuak izan ditzan. Horrela, bai Nafarroako Foru Ogasunarendako eta baita ukitutako funtzionarioendako soluzio arrazoizkoena lortzeko jarduerabidea hautatu ahal izanen du.

4. Zer harreman izan ditu horri buruz Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin eta langileen ordezkariarekin?

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak badu gestio hauen berri Toki Araubidearen Foru Batzordean parte hartu duelako.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko urriaren 20an

Lehendakaritza, Justizi eta Barne kontseilaria:
Rafael Gurrea Indurain

Joko aretoak arautzen duen erregelamenduari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak joko aretoak arautzen duen erregelamenduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 30eko 6 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikaren Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du abuztuaren 30eko 270/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako joko aretoak arautzen dituen erregelamenduari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizi eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Abuztuaren 30eko 270/1999 Foru Dekretua, Joko aretoen araubidea onesten duena, bere arrazoien azalpenean adierazten den bezala, joko aretoendako berariazko araubide oso baten premian oinarritzen da. Araubide horrek aplikagarri diren arauak bateratuko ditu eta gainera, sakabarnatzea ekidin eta gaiari buruz estatuko arauetara jo beharra ere saihestuko du.

Halaber, erregelamenduzko testu bakar batean jokoaren sektore jakin horren jardueran eragina duten kontu guztiak barneratu nahi ditu, aretoen erabilera baldintzak berrituz eta beste komunitate autonomoetakoekin berdinez. Dena den, horrek ez du eragotziko jokalariren eta biztanleriaren sek-

toaren babesgabeen alde zenbait neurri hartzea edo segurtasunerako edo ikuskizun publiko eta josteta jardueretan poliziak erabiltzeko berarizko neurriak barneratzea.

Arauan, mota horretako establezimenduak ezartzearen inguruko planifikazio irizpide batzuk ere zehazten dira: gutxieneko azalera –komunitate eta hiri autonomo gehienetan indarrean dagoenaren berdina– eta zenbait murrizketa behin-behinekoko baimena emateko.

Dena den, 270/1999 Foru Dekretuak ez du joko aretoendako erregimen ezberdinik ezartzen, handiak ala txikiak direlarik ere. Alderantziz, aipatutako xedapenak berori indarrean sartu aurrekoak errespetatzen ditu eta aplikagarri zaie ondoren ezarriko diren establezimenduen araubidea bera. Beraz, eta galdetutakoari zehazki erantzutearren, baimena izanen dute makina bereziak instalatzeko, fidantza egokitzeko, ezarritako ordutegi erregimenera atxikitzeko edo baita taberna zerbitzua jartzeko ere. Guzti horrek ez du eragotziko xedapen horrek egoera administratibo zehatzetan aplikagarria den erregimen iragankorra jasotzea baimenaren espedienteari dagokionean, espediente horren tramitazioa hura indarrean sartu aurretik edo areto zaharrak erregimen berrira egokitu baino lehen hasi bada.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko urriaren 18an

Lehendakaritza, Justizi eta Barne kontseilaria:
Rafael Gurrea Indurain

“Fondo galdurako dirulaguntzak industri segurtasun arloan” programaren betetze-egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak “Fondo galdurako dirulaguntzak industri segurtasun arloan” programaren betetze-egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 30eko 6 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

"Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco" Parlamentuko Taldeko José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Fondo galdurako dirulaguntzak industri segurtasun arloan” programari buruz. Hona Nuria Iturriagagoitia Ripoll Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna:

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan ez dago 211.147.500 pezetako “Fondo galdurako dirulaguntzak industri segurtasun arloan” izeneko programarik.

Halere, “Lan harremanak” programaren barruan badira bi lerro -“Laneko arriskuei aurrea hartzeko programa” eta “Laneko arriskuei aurrea hartzeko inbertsioak”-, 60 eta 75 milioioak, hurrenez hurren.

Lehen lerroaren kargura, ondoko entitateei eman zaizkie laguntzak 1999ko urriaren 15a bitarte, guztira 52.863.000 pezeta:

- CONSEBRO (Kontserba begetalen elkarteak)
 - Cintruénigoko Udala
 - ADEMAN (Zuraren Nafarroako enpresarioen elkarteak)
 - ACEN (Nafarroako zurgin eta ebanisten elkarteak)
 - UGT
 - CCOO
- “Laneko arriskuei aurrea hartzeko inbertsioak” lerroaren kargura, ondoko enpresei eman zaizkie laguntzak 1999ko urriaren 15a bitarte, guztira 14.572.910 pezeta:

- TUTTI PASTA S.A.
- PANADERÍA HNOS. BARCO ALONSO
- CONSTRUCC. CERVERA Y MONREAL S.L.
- INDUSTRIAS METÁLICAS TERU S.A.
- TECNIMOEN 97 S.L.
- ALBARRADA S.A.
- EXTINTORES MONCAYO S.L.
- ELECTRIFICACIONES LUMEN S.A.L.
- MACRIFE S.L.
- CONSTRUCC. ZUBILLAGA S.A.

Iruñean, 1999ko urriaren 19an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria, Nuria Iturriagagoitia Ripoll

Belateko tuneleko azken jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak Belateko tuneleko azken jarduketei buruz egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 30eko 6 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeko José María Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Belateko tuneleko azken jarduketei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Nahiz eta José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunaren idazkian, galdera idazpuruaren azpian, zazpi galdera agertu, lehenengo biak –“Belateko tunela itxita dago abuztuaz gero, egituran antzemandako akatsak direla-eta; izan ere, maiatzaren 28an pertsona batek zauri arinak izan zituen horien ondorioz” eta “Orduan esan zenez, lanak ez ziren mugatuko egun hartan pertsona horri zauri arinak eragin zizkion askatze hura behin betikoz konpontzera; aitzitik, tunelaren beste zati batzuetan ere jarduteko asmoa zegoen, zalantzak zituztelako alboko lurren egoerari eta haien sakatzeko intentsitateari buruz”– ez dira galderak baizik eta baieztapenak. Beraz, ezin zaie erantzunik eman.

3. Zein izan da egindako jarduketaren kostua?

Gertatutako akatsak direla eta, alegia, tunelaren mendebaldeko aldean (hegoaldeko sarreratik 1.700 metrora) hormigoizko estalduraren 4 m² erori zirela eta, tunela itxi egin zen maiatzaren 29tik ekainaren 16ra, akats hori konpontzeko eta tunelaren arazo orokorra aztertzeko.

Egun horietan zehar, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren eskariz, GEO-CONTROL, S.A. enpresak (Minas D. Benjamín Celada Tamanes katedradunaren gidaritzapean) tunel osoaren azterketa egin zuen egoera zehazteko. Horren arabera, egin beharreko jarduketaren txostena prestatu zuen.

Jarduketa horiek 1999ko abuztuaren 3tik 26ra egin ziren (biak barne), eta beraz, epe horretan tunela itxita egon zen.

Gaurko egunean lan horiek kitatu gabe daude; hori dela eta, momentu honetan ez dakigu zenbatekoa den jarduketaren guztizko kostua.

4. Noren erru dira antzemandako arazo horiek? Obra zuzendaritzarena? obraren exekuzioarena? Ala uste al du Departamentuak obra gaizki egitea ez dela inoren ardura?

Departamentuak honako arrazoi hauek ematen ditu:

a).- Obrak proiektuan aurreikusitakoari atxiki zitzaizkion, batez ere tunelaren sostenguari zego-kionean.

b).-Aztertutako lodierak proiektuan aurreikusitakoekin bat datoz, gunitadoaren teknologiak berekin dakartzan aldaketekin. Dena den, hankamotz gelditu ziren eremuak erregularizatu ziren.

Hala ere, badira zenbait puntu teoriarik behar luketen baino lodiera gutxiagoa dutenak. Horregatik, proiektuak aurreikusi zuen lodiera minimoak gehienez ere 2 zentrimetrotako aldea izan zezake-ela aurreikusitako lodierarekiko.

Izan ere, halaxe gertatu da eta batez besteko lodiera teoriarik behar duena baino handiagoa da.

c).-Hormigoiarenekin batez besteko erresistentzia 433,8 Kg/cm²-takoa izan da eta proiektuan aurreikusitakoa aldiz 250 Kg/cm²-takoa.

Obren zuzendaritzaren aldetik ez dago erantzunik. Akatsa gertatu da inguruko lur-eremua isurpenean sartu delako, tunelari era irregularrean bultzatuz.

Fenomeno hori gertatu da lur-eremuko urak oharkabean birbanatu egin direlako eta ondorioz, tunela eraiki eta bi urtetara, hasierako lur-eremuaren ezaugarri geometrikoak txarrera egin dute. Guzti horrek hasiera batean aurreikusi ez ziren bultzadak ekarri ditu eta sostenguko akats hori sortu.

5. Erruak erru, ba al du Departamentu horrek bere jarrera bermatzen duen txosten teknikorik? Hala bada, txostenen kopia ere eskatzen dut.

Diagnostikoaren txostenaren kopiak erantsi dira eta baita egindako jarraipeneko lanei buruzkoa ere.

6. Departamentuaren ustez, egindako jarduketek behar bezala bermatzen al dute bertatik ibiltzen diren pertsona eta ibilgailuen segurtasuna?

Departamentuak jarduketa guztiak tunelaren sostengu iraunkorra finkatzeko egin ditu. Egituraren egoera berria ezagutzeko "konbergentzietarako" (sostenguko deformazioak) neurrien programa bat ezarri da, eta baita tunelaren beste parametro garrantzizko batzuetarako ere. Azken neurketa irailaren 29an egin zen: balioak egonkortuta zeuden edo egonkortzeko fasean.

7. Uste al du departamentuak epe motz edo ertainean atzera ere egin beharko direla lanak tunelean?

Departamentuak uste du ez dela beharko jarduketarik, ez epe motzean ez eta ertainean ere.

Dena dela, Nafarroako errepideetako tunel guztien azterketa eta jarraipena egiteko kontratu

bat prestatzen ari dira. Tunelak, guztira, 23 dira eta 10.235 metroko luzera dute guztira, Belatekoa barne. Modu horretan, tunelen egungo egoera eta denboran zehar izan duten bilakaera jakin ahal izanen da, eta beharrezkoa izanez gero, mantentze edo konpontze jarduerak egingen dira, azpiegitura guztietan ohikoa den bezala.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko urriaren 15ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

(Oharra: Aipatu dokumentuak foru parlamentarioen eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Itoizko urtegiko hegietako batean lerrokadurak izateko arriskuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak Itoizko urtegiko hegietako batean lerrokadurak izateko arriskuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 30eko 6 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

"Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco" Parlamentuko Taldeko José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Itoizko urtegiko hegietako batean lerrokadurak izateko arriskuari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak egindako idazkian, "Galdera" idazpuruaren azpian hiru agertzen dira, eta

horietako lehena ez da galdera, ezpada ere baieztapena: "Komunikabideen bitartez jakin dugu Nafarroako Gobernuak eskatuta txosten bat egin zela orain hamar urte. Txosten hori Ingurugiro Ministerioak dauka, eta bertan agerian uzten da Itoizko urtegiko ezker aldearen oinarria den mendi hegian lerrokadurak izateko arriskua dagoela".

Baieztapen hori dela-eta, argitu egin behar da ez dabilela zuzen; izan ere, Itoizko urtegiari buruzko espedientea, Herrilan Zerbitzuan baitago, aztertu eta gero, hauxe esan behar dugu:

a) Aipatu espedientearen ez da azaltzen Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Itoizko urtegiari buruzko enkargurik egin dienik ez INTECSARI ez EUROESTUDIOS enpresari ere.

b) Aipatu espedientearen azaltzen denez, Herrilan eta Hirigintza Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateak lankidetzan hitzarmena sinatu zuten Madrilan 1988ko urriaren 19an. Horren arabera, bi administrazioak elkarlanean arituko dira hainbat obra eta instalaziori buruzko azterlanak egin eta horiek burutu eta kudeatzeko, nor bere eskumenak hobeto baliatzearen. Hitzarmenean aurreiku-

sitako jarduketan artean dago Irati ibaiko Itoizko urtegia.

c) Espedientearen barruan dago Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak azaroaren 27an emandako 1378/1989 Foru Agindua. Horren bidez, eta arestiko puntuan aipatutako hitzarmenaren esparruan, ondotik hitzez hitz ematen dena onetsi zen: "Ebroko Ur Konfederazioak Itoizko urtegiko proiekturako azterlan osagarriak egiteko egin duen diru eskaera -24.976.000 pezeta-ontzat hartzea" eta "24.976.000 pezetako gastua onestea, Ebroko Ur Konfederazioari Itoizko urtegiko proiekturako azterlan osagarriak egiteko dirulaguntza gisa."

Horrenbestez, 1989ko foru agindu hori Ebroko Ur Konfederazioak egindako eskari baten ordainketari dagokio soil-soilik, eta horrek ez du esan nahi Nafarroako Gobernuak txosten hori jaso zuenik, eta halaxe azaltzen da espedientearen.

2. Gure taldeak hauxe jakin nahi du: ba al zuen txosten horren berri Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak? Ba al dauka Departamentuak txosten hori?

Arestian erantzun zaio horri.

3. Zer neurri hartu ditu edo hartuko ditu Departamentu horrek obraren alde horretako segurtasuna bermatzearren?

Dakikezun legez, Ebroko Ur Konfederazioak sustatu eta egiten ditu Itoizko urtegiko obrak, eta hortaz, Nafarroako Gobernuak ez du inolako eskumenik egiten duzun galderaz den bezainbat.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria, José Ignacio Palacios Zuasti

Zozaia-Legasa bideuneko obrei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak Zozaia-Legasa bideuneko obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 30eko 6 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeko José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Zozaia-Legasa bideuneko obren esleipenari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Nahiz eta José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunaren idazkian "Galdera" idazpuruaren azpian hiru galdera agertu, lehena –"Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak orain dela gutxi esleitu ditu Zozaia-Legasa bideuneko obrak"– ez da galdera,

baizik eta baieztapena; beraz, ezin zaio ezer erantzun.

2. Zein enpresak hartu dute parte horretarako abian jarri zen esleipen prozesuan?

Hona hemen parte hartu zuten enpresak:

1.- ACS, Proyectos, Obras y Construcciones

2.- Necso Entrecanales Cubiertas, S.A.

3.- UTE "Construcciones Azpíroz y Saralegui, S.L. / Pavimentos de Navarra, S.A. (Padenasa) / Compañía Auxiliar de Voladuras, S.A. (Cavosa)".

4.- UTE "Urbanizaciones Iruña, S.A. / Construcciones Luciano Elcarte, S.L. / Industrias Asfálticas de Navarra, S.A. (Navasfalt)".

5.- UTE "Hormigones de la Ribera, S.A. (Harinsa) / Rodio, Cimentaciones Especiales, S.A."

6.- Ploder, S.A.

7.- UTE "Obrascón-Huarte-Laín, S.A. / Asfaltos de Biurrun, S.A."

8.- UTE "FCC Construcción, S.A. / Canteras de Alaiz, S.A."

9.- Construcciones Mariezcurrena, S.L.

10.- UTE "Obras y Preparación de Terrenos, S.L. / Obras Subterráneas, S.A. (Ossa)"

11.- Grupo Dragados, S.A.

12.- UTE "Obras Especiales de Navarra, S.A. (Obenasa) / Alcer, S.L."

3.- Zein enpresari esleitu zaizkio obrak? Zer irizpide erabili dira?

UTE Zozaya enpresari esleitu zaio. Enpresa hori osatzen dute Construcciones Azpíroz y Saralegui, S.L., Pavimentos de Navarra, S.A. (Padenasa) eta Compañía Auxiliar de Voladuras, S.A. (Cavosa). Esleipenerako erabili diren irizpideak "Belate portuko obrak; bidegunea: Zozai - Doneztebe, III. azpi-bidegunea: 17+900 kp.tik 24+146ra" (uztailaren 6ko 2500/1999 Foru Aginduak onetsia) obraren administrazio klausula partikularren pleguan bildutakoak dira. Hona hemen:

a) Eskaintza ekonomikoa: 85 puntu arte.

– Eskaintza bakoitzaren bajak, lizitazioko aurrekontuarekiko, lortzen dira. Baja horien zenbatekoak ehuneko hainbestekoaren balio absolutuaz eta bi hamarrenekin adierazten dira.

– Lehiaketaren batez besteko baja (BM) lortzen da: bajaren balio absolutua (ehuneko hainbestekoan eta bi hamarrenekin) lizitazioko aurrekontuarekiko, aurkeztutako baliozko proposamen ekonomiko guztien batez besteko aritmetikotik.

– Eskaintzen puntuazioa lehiaketaren batez besteko bajarekiko duten hurbiltasunaren arabera egiten da eta ondokoari jarraikiz:

- Eskaintzak % (BM + 2) bajarekin: 85 puntu
- Eskaintzak % (BM + 3) bajarekin: 85 puntu
- Eskaintzak % (BM + 1) bajarekin: 85 puntu
- Eskaintzak % (BM + 7) bajarekin: 75 puntu
- Eskaintzak % (BM - 3) bajarekin: 65 puntu
- Eskaintzak % (BM + 12) bajarekin: 35 puntu
- Eskaintzak % (BM - 8) bajarekin: 15 puntu
- Eskaintzak % (BM + 3) eta (BM + 7) artean: Bajako gehiegizko puntu bakoitzeko, bi puntu eta erdi gutxiago puntuazioan
- Eskaintzak % (BM + 1) eta (BM - 3) artean: Bajako gutxiagoko puntu bakoitzeko, bost puntu gutxiago puntuazioan
- Eskaintzak % (BM + 7) eta (BM + 12) artean: Bajako gehiegizko puntu bakoitzeko, zortzi puntu gutxiago puntuazioan

• Eskaintzak % (BM - 3) eta (BM - 8) artean: Bajako gutxiagoko puntu bakoitzeko, hamar puntu gutxiago puntuazioan

b) Eskaintzaren balio teknikoa: 13 puntu arte

Eskaintzaren balio teknikoaren puntuazioak kontuan hartzen ditu ondoko kontzeptu hauek, ondotik zehazten den gehienezko puntuazio partzialarekin:

- Obraren plangintza eta antolaketa 6 puntu arte
- Ekarpen estetiko osagarria puntu 1 arte
- Eraikuntza osteko zerbitzua 6 puntu arte

Hiru kontzeptuetako bakoitza 1etik 10ra bitarte baloratuko da eta aurreko baremoaren arabera haztatuko da. Emaizta bi hamarrenekin adierazten da.

c) Kalitatea: puntu 1 arte

Balorazioa ondokoari jarraikiz egiten da:

1. Puntu bat emanen zaie obraren zenbatekoaren % 75 baino gehiagokoa den eraikuntza prozesurako UNE-EN ISO 9001 edo 9002 kalitate egiaztagiria duten enpresen eskaintzei, edo borondatez plegu honetako 19.2 klausulan aurreikusitako garantia epea 12 hilabete gehiagotan luzatzen dutenei.

2. 0 puntu emanen zaie obraren zenbatekoaren % 75 baino gehiagokoa den eraikuntza prozesurako UNE-EN ISO 9001 edo 9002 kalitate egiaztagiririk ez duten enpresen eskaintzei, edo plegu honetako 19.2 klausulan aurreikusitako garantia epea 12 hilabete gehiagotan luzatzen ez dutenei.

d) Enpresaren lan egoera: puntu 1 arte

Balorazioa ondokoari jarraikiz egiten da:

1. Puntu bat emanen zaie enpresek aurkeztutako eskaintzei, baldin eta kaudimen teknikoa egiaztatzeko orduan plantillako behin-behineko langileen kopurua ehuneko 10 baino handiagoa ez bada.

2. 0 puntu emanen zaie enpresek aurkeztutako eskaintzei, baldin eta kaudimen teknikoa egiaztatzeko orduan plantillako behin-behineko langileen kopurua ehuneko 10 baino handiagoa bada.

Enpresen Aldibaterako Batasunetan diren enpresak eta batera parte hartzen duten lizitatzai-leak, c eta d idatz-zatietan xedatutakoari jarraikiz puntuatuko dira, puntuazioa euren parte hartzearen arabera banatuz.

Eskaintzaren balio teknikoaren, kalitatearen eta enpresaren lan egoeraren puntuazioak batuta, kopuruak biribildu egingen dira, goiti edo beheiti, puntu erdi edo puntu oso bat.

Esleipenerako aurreko hiru irizpide horietatik lortutako puntuazioa (kopuruak biribilduta) eskaintza ekonomikotik lortutako puntuazioari batuko zaio.

Puntuazio osoan bi eskaintza edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero eskaintza ekonomiko txikiena duenaren alde egingen da. Baldin eta hala ere berdinketak jarraitzen badu eskaintza

ekonomikoak berdinak direlako, kaudimen tekniko egiaztatu behar duen unean plantillan langile minusbaliatuen portzentaje altuena duen enpresaren alde egingen da, betiere portzentaje hori ehuneko bia baino txikiagokoa ez bada.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko urriaren 14an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria
José Ignacio Palacios Zuasti

Sunbillako bigarren faseko obrei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak Sunbillako bigarren faseko obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 30eko 6 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeko José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Sunbillako bigarren faseko obren esleipenari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Nahiz eta José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunaren idazkian "Galdera" idazpuruaren azpian hiru galdera agertu, lehena –"Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak orain dela gutxi esleitu ditu Sunbillako 2. faseko obrak"– ez da galdera, baizik eta baieztapena; beraz, ezin zaio ezer erantzun.

2. Zein enpresek hartu dute parte horretarako abian jarri zen esleipen prozesuan?

Hona hemen parte hartu zuten enpresak:

1.- ACS, Proyectos, Obras y Construcciones

2.- Necso Entrecanales Cubiertas, S.A.

3.- UTE Urbanizaciones Iruña, S.A. / Cnes. Luciano Elcarte, S.L. / Navasfalt

4.- UTE Harinsa / Rodio, Cimentaciones Especiales, S.A.

5.- Ploder, S.A.

6.- UTE "Construcciones Azpíroz y Saralegui, S.L. / Pavimentos de Navarra, S.A. (Padenasa) / Compañía Auxiliar de Voladuras, S.A. (Cavosa)".

7.- UTE "Obrascón-Huarte-Laín, S.A. / Asfaltos de Biurrun, S.A."

8.- UTE "FCC Construcción, S.A. / Canteras de Alaiz, S.A."

9.- UTE "Excavaciones Olloquiegui, S.A. / Grupo Dragados, S.A."

10.- UTE "Alcer, S.L. / Obras Especiales de Navarra, S.A. (Obenasa)"

11.- Ferrovial-Agromán, S.A.

12.- Construcciones Mariezcurrena, S.L.

13.- UTE "Obras y Preparación de Terrenos, S.L. / Obras Subterráneas, S.A. (Ossa)"

14.- UTE "Coprisa / Construcciones Galdiano, S.A."

15.- UTE "Construnavar, S.L. / Alvargonzález Contratas, S.A."

3. Zein enpresari esleitu zaizkio obrak? Zer irizpide erabili dira?

Necso Entrecanales Cubiertas, S.A. enpresari esleitu zaio. Esleipenerako erabili diren irizpideak "Arrigazteluko eraikuntza, N-121-A errepidean; bidegunea: 59+500 kp.tik Sunbillako saihebiderraino" (uztailaren 6ko 2499/1999 Foru Aginduak onetsia) obraren administrazio klausula partikularren pleguan bildutakoak dira. Hona hemen:

a) Eskaintza ekonomikoa: 85 puntu arte

– Eskaintza bakoitzaren bajak, lizitazioko aurrekontuarekiko, lortzen dira. Baja horien zenbatekoak ehuneko hainbestekoaren balio absolutuaz eta bi hamarrenekin adierazten dira.

– Lehiaketaren batez besteko baja (BM) lortzen da: bajaren balio absolutua (ehuneko hainbestekoan eta bi hamarrenekin) lizitazioko aurrekontuarekiko, aurkeztutako baliozko proposamen ekonomiko guztien batez besteko aritmetikotik.

– Eskaintzen puntuazioa lehiaketaren batez besteko bajarekiko duten hurbiltasunaren arabera egiten da eta ondokoari jarraikiz:

- Eskaintzak % (BM + 2) bajarekin: 85 puntu
- Eskaintzak % (BM + 3) bajarekin: 85 puntu
- Eskaintzak % (BM + 1) bajarekin: 85 puntu
- Eskaintzak % (BM + 7) bajarekin: 75 puntu
- Eskaintzak % (BM - 3) bajarekin: 65 puntu
- Eskaintzak % (BM + 12) bajarekin: 35 puntu
- Eskaintzak % (BM - 8) bajarekin: 15 puntu
- Eskaintzak % (BM + 3) eta (BM + 7) artean: Bajako gehiegizko puntu bakoitzeko, bi puntu eta erdi gutxiago puntuazioan
- Eskaintzak % (BM + 1) eta (BM - 3) artean: Bajako gutxiagoko puntu bakoitzeko, bost puntu gutxiago puntuazioan
- Eskaintzak % (BM + 7) eta (BM + 12) artean: Bajako gehiegizko puntu bakoitzeko, zortzi puntu gutxiago puntuazioan
- Eskaintzak % (BM - 3) eta (BM - 8) artean: Bajako gutxiagoko puntu bakoitzeko, hamar puntu gutxiago puntuazioan

b) Eskaintzaren balio teknikoa: 13 puntu arte

Eskaintzaren balio teknikoaren puntuazioak kontuan hartzen ditu ondoko kontzeptu hauek, ondotik zehazten den gehieneko puntuazio partzialarekin:

- Obraren plangintza eta antolaketa 6 puntu arte
- Ekarpen estetiko osagarria puntu 1 arte

– Eraikuntza osteko zerbitzua 6 puntu arte

Hiru kontzeptuetako bakoitza 1etik 10ra bitarte baloratuko da eta aurreko baremoaren arabera haztatuko da. Emaiza bi hamarrenekin adierazten da.

c) Kalitatea: puntu 1 arte

Balorazioa ondokoari jarraikiz egiten da:

1. Puntu bat emanen zaie obraren zenbatekoaren % 75 baino gehiagokoa den eraikuntza prozesurako UNE-EN ISO 9001 edo 9002 kalitate egiaztagiria duten enpresen eskaintzei, edo borondatez plegu honetako 19.2 klausulan aurreikusitako garantia epea 12 hilabete gehiagotan luzatzen dutenei.

2. 0 puntu emanen zaie obraren zenbatekoaren % 75 baino gehiagokoa den eraikuntza prozesurako UNE-EN ISO 9001 edo 9002 kalitate egiaztagiririk ez duten enpresen eskaintzei, edo plegu honetako 19.2 klausulan aurreikusitako garantia epea 12 hilabete gehiagotan luzatzen ez dutenei.

d) Enpresaren lan egoera: puntu 1 arte

Balorazioa ondokoari jarraikiz egiten da:

1. Puntu bat emanen zaie enpresek aurkeztutako eskaintzei, baldin eta kaudimen teknikoa egiaztatzeko orduan plantillako behin-behineko langileen kopurua ehuneko 10 baino handiagoa ez bada.

2. 0 puntu emanen zaie enpresek aurkeztutako eskaintzei, baldin eta kaudimen teknikoa egiaztatzeko orduan plantillako behin-behineko langileen kopurua ehuneko 10 baino handiagoa bada.

Enpresen Aldibaterako Batasunetan diren enpresak eta batera parte hartzen duten lizitatzailerak, c eta d idatz-zatietan xedatutakoari jarraikiz puntuatuko dira, puntuazioa euren parte hartzearen arabera banatuz.

Eskaintzaren balio teknikoaren, kalitatearen eta enpresaren lan egoeraren puntuazioak batuta, kopuruak biribildu egingen dira, goiti edo beheiti, puntu erdi edo puntu oso bat.

Esleipenerako aurreko hiru irizpide horietatik lortutako puntuazioa (kopuruak biribilduta) eskaintza ekonomikotik lortutako puntuazioari batuko zaio.

Puntuazio osoan bi eskaintza edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero (kopuruak biribilduta) eskaintza ekonomiko txikiena duenaren alde egingen da. Baldin eta hala ere berdinketak jarraitzen badu eskaintza ekonomikoak berdina direla-

ko, kaudimen teknikoak egiazatu behar duen unean plantillan langile minusbaliatuen portzentaje altuena duen enpresaren alde eginen da, betiere portzentaje hori ehuneko biko baino txikiagokoa ez bada.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko urriaren 14an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria
José Ignacio Palacios Zuasti

“Lurzorua eta etxebizitza eskuratu eta sustatzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak “Lurzorua eta etxebizitza eskuratu eta sustatzea” aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 24ko 5 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikaren Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Lurzoru eta etxebizitzarenerosketa eta sustapena” izeneko aurrekontuko kontusailaren betetze-mailari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

KONTZEPTUA	BAIMENDUTAKO ETA EZARRITAKO KREDITUA	1999-10-06an ORDAINDUTAKOA
Sarriguren, UEPSaren prestaketa, ideien lehiaketa	59.000.000	33.620.000
Mendillorriko 4. faseko urbanizazioa	500.000.000	245.055.192
Tuterako 16. UE eta 17. UE unitateak urbanizatzea	30.746.096	30.476.096
Tuterako Institutuko poligonoa urbanizatzea (ordutegiak, lurzatiez birzatiketa, proiektuak eta hasierako beste zenbait gastu)	61.270.040	61.270.040
Tuteran eraikina erostea	5.000.000	5.000.000
Errausketa (Tutera)	8.878.438	-
Errausketa (Mendillorri-Astibia)	24.843.829	-
Zenbait zerbitzu-sari tekniko	7.469.000	-
Tuteran eraikina erostea	3.000.000	
Tafallan eraikina erostea	3.220.479	
GUZTIRA	703.157.822	375.421.328

Ekitaldiaren bukaeran kontusailaren kopurua gainditzea aurreikusi da: Tuteran zenbait higiezin erosiko dira, Iruñeko Udalaririk lurzorua erosiko zaio, eta Mendillorriko laugarren fasea urbanizatzeko obretan hobekuntzak egiten dira eta beraz, behar den legezko prozedura bete ondoren 1.200 milioietara iritsi ahalko da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko urriaren 20an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

“Abelbideak hobetzea” programaren betetze-egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak “Abelbideak hobetzea” programaren betetze-egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 30eko 6 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

"Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco" Parlamentuko Taldeko José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Abelbideak hobetzea” aurrekontu-lerroari buruz (12250 kodea). Hona Ingurugiro, Lurralde-

ren Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Probintzietako Errege Abelbidea (CRLP) egokitu eta basoberritzea, Añezkar (Antsoain Zendea), Sarasa (Itza Zendea), Aristregi, Osinaga eta Osakar (Txulapain) udal mugapeetan barrena egiten duen ibilbide puskan.

1999ko urterokoa.....5.054.500 pezeta

2.- Orba ibarreko Errege Abelbidea (CRVA) kontserbatu eta ingurugiro aldetik hobetzea, Undio (Zizur Zendea), Zabaltza, Arraitza, Belaskoain eta Bidaurretako udal mugapeetan barrena egiten duen ibilbide puskan.

1999ko urterokoa.....6.349.591 pezeta

3.- Lodosako Errege Abelbidea (T-6 eta P-13) kontserbatu eta ingurugiro aldetik hobetzea, Lerin-go udal mugapean barrena egiten duen ibilbide puskan.

1999ko urterokoa.....2.000.000 pezeta

4.- Milagro-Aezkoa Errege Abelbidea (CRMA) kontserbatu eta ingurugiro aldetik hobetzea, Urrotz eta Idoate (Izagaondoa) udal mugapeetan barrena egiten duen ibilbide puskan.

1999ko urterokoa.....3.100.000 pezeta

5.- Los Arcosko abelbidea kontserbatu eta ingurugiro aldetik hobetzea.

1999.....1.555.000 pezeta

6.- Aktetako mugarrien arabera sasiak kendu eta birjartzeko lanen areak zehazteko laguntza teknikoak, Bidankoze, Esa, Jaurrieta eta Belasko-aingo udal mugapeetan.

1999.....2.000.000 pezeta

7.- Abelbideak aztertzeke laguntza teknikoak, Lerin, Urrotz eta Idoate (Izagaondoa) udal mugapeetan kontserbazio eta ingurugiro aldetik hobekuntza jarduketak egitearren; urteko jarduketak biltzen dituen mapa tematikoak eta Buñuel zein Petilla de Aragón udal mugapeetako Nafarroako Ardibideen inbentarioa eta kartografia egiteko laguntza.

1999.....3.125.000 pezeta

8.- Erronkari Ibarreko Batzarreko artxioban dagoen Abelbideen dokumentu-fondoa mikrofilmatzeko lanak.

1999.....490.000 pezeta

9.- Tausteko Abelbidetik Urbasa zein Andia mendietara eta R-7ra doan bidea aldatzeko zuinketa-lanak eta mugarriak jartzea, Cabanillas eta Tuterako udal mugapeetan.

1999ko urterokoa.....1.175.500 pezeta

10.- "Pasada Principal del Ebro" abelbideko arboladia inaustea, Sesma udal mugapean.

1999ko urterokoa.....464.000 pezeta

11.- Probintzietako Errege Abelbidea eta "Pasada nº 26" aztertzeke laguntza teknikoak, Berriobeiti, Itza, Txulapain, Esteribar eta Erroko udal mugapeetan kontserbazio eta ingurugiro aldetik hobekuntza jarduketak egitearren.

1999ko urterokoa.....985.000 pezeta

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria, Jesús Javier Marcotegui Ros

“Dirulaguntzak eta jarduketak” programaren betetze-egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak “Dirulaguntzak eta jarduketak” programaren betetze-egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 30eko 6 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

"Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco" Parlamentuko Taldeko José María Aierdi Fernández de Barrena foru

parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Dirulaguntzak eta jarduketak” aurrekontu-lerroari buruz (12350 kodea). Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Honekin batera doan laukian zehazten dira sustatutako jarduketak, horietako bakoitzerako hitzartutako gastua eta jarduketa onetsi zuen foru agindu edo ebazpena.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria, Jesús J. Marcotegui Ros

LERROAREN IZENA 1999	LERROA	Azpil.	SUSTATUTAKO JARDUKETA	HITZAR-TUA	FORU AGINDUA/ EBAZPENA
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	0	ZENBAIT	773852	--
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	1	BASO-BERRITZEA ARANTZAN (UNANUA)	45788786	R 2543 – 21/10/98
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	2	BASO-BERRITZEA LEGUA ACOTADAN (OLABERRI)	8203408	R 2533 – 21/10/98
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	3	BASO-BERRITZEA ETXALARREN (UNANI)	9241892	R 2543 – 21/10/98
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	4	BASO-BERRITZEA ZUBIETAN (TXITXILLO, ETAB.)	13977359	R 2542 – 21/10/98
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	5	BASO-BERRITZEA LESAKAN (MIKELGORRI)	9288411	R 2541 – 21/10/98
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	6	BASO-BERRITZEA ETXALARREN (ZABALETA)	29564046	R 2540 – 21/10/98
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	7	BASO-BERRITZEA JABB (SAGASTA-BUSTILAN)	13656934	R 2539 – 21/10/98
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	8	BASO-BERRITZEA BAZTANEN (ZARBASTA-ARAKAN)	5730261	R 2538 – 21/10/98
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	9	BASO-BERRITZEA BAZTANEN (SAGARBIL)	14926979	R 2537 – 21/10/98
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	10	BASO-BERRITZEA BAZTANEN (OTSONDO-INDARTEA)	5432356	R 2536 – 21/10/98
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	11	BASO-BERRITZEA BAZTANEN (URBIA-BIZUBIETA)	8642820	R 2535 – 21/10/98
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	12	BASO-BERRITZEA GARESEN (SAN GREGORIO)	5547764	R 2534 – 21/10/98
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	13	GARBIKETAK BASO-BERRITZEETAN	95103721	R 1322 – 17/05/99
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	14,1	DIRULAGUNTZAK BASO-LANEI (TALDEA 1º)	374065128	OF 954 – 06/07/99
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	14,2	DIRULAGUNTZAK BASO-LANEI (TALDEA 2º)	300464693	OF 955 – 06/07/99
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	14,3	DIRULAGUNTZAK BASO-LANEI (TALDEA 3º)	25097841	OF 1266 – 08/10/99
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	15	BASO-BERRITZEA EN ESPINAL (ANBULATZ)	6242646	R 1713 – 01/07/99
DIRULAG. ETA JARDUK. (BASO-PLAN PRO)	12350-8	16	SUBVENCION TRABAJOS FOREST.ES (1998TIK ORDAINTZEKE)	152326	OF 1204 – 22/09/99
LERROA, GUZTIRA				971901223	

A-15 autopista pribatizatzeke asmoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Félix Taberna Monzón foru parlamentario jaunak A-15 autopista pribatizatzeke asmoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko irailaren 17ko 3 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Félix Taberna Monzón foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du A-15 autopista pribatizatzeke asmoari buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ez daki Autopisten Enpresa Nazionala (E.N.A.) pribatizatzeari buruz inolako erabakirik hartu denentz.

Nafarroako Gobernuak E.N.A.ko ordezkariekin eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioko ordezkariekin izan dituen elkarrizketetan jakin duenez, Ministerioak Autopisten Enpresa Nazionalaren balorazioa enpresa aholkulari bati eskatzea erabaki du.

Nafarroako Gobernuak ez du horren gaineko erabakirik hartu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluari jarraikiz.

Iruñean, 1999ko urriaren 22an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

“Sustapen eta Garapen Atala” entitateari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak “Sustapen eta Garapen Atala” entitateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 20ko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeko José María Aierdi de Barrena Eusko Alkartasunako foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Sustapen eta Garapen Atalari” buruz. Hona Nuria Iturriagagoitia Ripoll Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna:

A) FUNTZIOAK, HELBURUAK, LANGILEAK ETA AURREKONTUA.

Sustapen eta Garapen Atalek Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak 1994ko abuztuaren 3an emandako Aginduan dute sorburua. Agindu horrek unitate horiei dirulaguntza publikoak emateko oinarriak arautzen ditu, Lantegi Eskola eta Lanbide Etxeenekin batera. Ondoren sortu dira antzeko ezaugarriak dituzten Enplegu Tailerrak.

Ministerioko Aginduaren eta INEMeko Zuzendaritza Nagusiaren 1995ko uztailaren 7ko Ebazpenaren arabera, Sustapen eta Garapen Atalak (SGA) eskualde eta herrialde mailan Lantegi Eskola eta Lanbide Etxeen proiektuak prestatzen, garatzen eta ebaluatzen laguntzen duten moduluak dira. Atal horiek eskualdeetan garapen eta enplegurako ahalmenak aurkitzen dituzte eta Lantegi Eskola eta Lanbide Etxeen interbentziarako plan integralak prestatzeaz gain, garapen proiektuak ere prestatzen dituzte proiektu horietan parte hartzen duten gazteen laneratzea sustatuz.

Garrantzitsua da azpimarratzea gizarte eta ekonomia garapenerako estrategia eta proiektuen dinamizatzailerik gisa duten eginkizuna. Egiteko hori enplegu eta garapen alorrean herrialdeetan diren erakunde eta instituzioekin lankidetzan aktiboan burutzen dute.

Horiek horrela, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbara Ofizialak Nafarroan Sustapen

eta Garapen Atala ezartzeko onespina eta zego-kion dirulaguntza eskatu zizkion INEMeko Zuzendaritza Nagusiari 1998-07-31an. Erakunde horretako Probintziko Zuzendaritzaren idazkiaren arabera 1998ko azaroaren bostean onetsi zen, hasiera batez 30 hilabetez aritzeko. Halaber, 83.635.522 pezetako dirulaguntza eman zitzaion lansarien gastuetarako eta 9.977.886 pezeta epe horretako funtzionamendu gastuetarako.

Nafarroako Sustapen eta Garapen Atalak bi egoitza ditu errealitate ezberdinak hobeki ezagutu eta zerbitzu hobea eskaintzeko: Tuteran, Erriberako eremua hartuz, eta Iruñean, Komunitateko erdialdeko eta iparraldeko eremuak barneratuz. Hauek osatzen dute Nafarroako SGA: zuzendari-koordinatzaile bat, zazpi teknikari, administrari bat, eta zenbaitetan, praktiketan diren tituludunak eta bekadunak.

B) NAFARROAKO SUSTAPEN ETA GARAPEN ATALAK BURUTZEN DITUEN JARDUKETAK.

1998ko abendutik 1999ko urrira, Nafarroako Sustapen eta Garapen Atalak ondoko jarduketa hauek burutu ditu:

1. TOKI, ESKUALDE ETA HERRIALDE MAILAKO GARAPEN AUKEREN IKERKETA ETA ANALISIA, ENPLEGUAREN ALORREAN

- Nafarroako Gobernuak prestatutako ondoko plan hauek enplegua sortzeko duten ahalmenaren azterketa: Nafarroako Baso Plana, Nafarroako Plan Gerontologikoa, Gizarte Bazterketaren aurka Borrokatzeko Plana eta 0-3 urte bitarteko haurren eskolatzearen inguruko jarduketak Foru Komunitatean.

- Etxebizitza eta eraikin publikoen mantentzearen alorrean enplegua sortzeko dauden aukeren azterketa.

- Nafarroako Foru Komunitatean enplegua sordezaketan azpiegitura turistikoaren azterketa.

- Nafarroako enpresei zuzendutako zerbitzuak azpisektorearen egoera eta etorkizunaren azterketa.

- Nafarroako Foru Komunitatean eskaintza publikoaren gidaliburua prestatzea.

- Nafarroan bitarteko egitura ordezkatzailerik inplementatzeko aukerak.

- Nafarroako lan merkatuaren egoera aztertzea.

- Nafarroan Nekazaritza Ekologikoaren alorrean enplegua sortzeko dauden aukeren azterketa.

- Nafarroan Abeltzaintza sektorean enplegua sortzeko dauden aukeren azterketa.

- Nafarroako biztanleriaren etorkizuna, 2000-2010 aldian.

- Eszenatokien simulazioa: biztanleria aktiboa, okupatua eta langabezian dagoena, 2000-2010 aldian.

- Nafarroako gazteen prestakuntzarako bideen aurreikuspena, 2000-2010 aldian.

- Nafarroako Foru Komunitateko udalerrietan erabiltzen ez diren edo gutxi erabiltzen diren baliabideen zerrenda.

- Eremu publikotik eta pribatutik egiten diren enplegu eskaintza zehatzen jarraipena.

- Beste entitate batzuk enplegua sortzeko aurkeztu dituzten proiektuei laguntza teknikoa eta aholkua ematea.

- Autonomo eta ETEei zuzenduta dagoen "Ohitura profesionalen hobekuntza" prestakuntza ekintzari laguntza teknikoa ematea.

2. Lantegi Eskola, LANBIDE ETXE ETA ENPLEGU TAILERREN PROIEKTUEN GARAPEN ALORRA

- Lantegi Eskola, Lanbide Etxe eta Enplegu Tailerrak garatzeko etorkizunean egin daitezkeen jarduketak zehaztea, Enpleguko Institutu Nazionalak Nafarroako Gobernuari (Nafarroako Enplegu Zerbitzua) enplegurako politika aktiboak eskualdatu ondoren.

- Obanosen Enplegu Tailerra sortzeko proiektuari laguntza teknikoa eta aholkua ematea.

3. ENPLEGU ETA LANERATZE ALORRA

- Nafarroako eta beste Komunitate Autonomoetako enpresetan praktikak burutzeko lankidetzak hitzarmenak egitea.

- Aholkularitza ekintzaileei.

Iruñean, 1999ko urriaren 25ean

Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

“Langabetuen orientazioa eta garapena” programari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak “Langabetuen orientazioa eta garapena” programari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 20ko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeko José María Aierdi de Barrena Eusko Alkartasunako foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Langabetuen orientazioa eta garapena” programari buruz. Hona Nuria Iturriagagoitia Ripoll,

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna:

Enpleguko Institutu Nazionalaren transferentziak arlo horri dagokionez, iragan urriaren 1etik aitzina eskuratu dira. Bestalde, momentu honetan, erakunde hartatik eskualdatu beharreko aurrekontuak eta estatuko arautegia aldatzeko aukera negoziatzen ari dira; eta hori, Lan eta Enplegu Gaien Konferentzia Sektorialaren bitartez egiten da. Horiek horrela, goizegi da auzi hori nola ebartziko den esateko. Bitartean, indarrean dirau Toki Garapenerako Eragileen programa arautzen duen egungo arautegiak.

Bestalde, ongi irizten diogu orientazio zerbitzuen eta toki garapenerako entitateen arteko koordinaketari.

Iruñean, 1999ko urriaren 25ean

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren entitate laguntzaileei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José María Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentario jaunak Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren entitate laguntzaileei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 20ko 12 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeko José María Aierdi de Barrena Eusko Alkartasunako foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren entitate laguntzaileei buruz. Hona Nuria Iturriagagoitia Ripoll Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna:

1. Zuzendaritza Batzordeak, 1998ko abenduaren 2an, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak aurkeztutako entitate laguntzaileei buruzko proposamen hau onetsi zuen:

Orokorrean, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren entitate laguntzailetzat jotzen dira Nafarroako Gobernuako erakunde publiko guztiak edo toki entitateak, baldin eta lanbide prestakuntza, bitartekaritza, enplegu orientazio edo sustapenarekin zerikusia duten eginkizun edo zerbitzuak garatzen badituzte.

Aurrekoek gain, entitate laguntzailetzat jotzen dira:

- CCOO (Comisiones Obreras de Navarra)
- UGT (Unión General de Trabajadores de Navarra)
- CEN (Confederación de Empresarios de Navarra)
- ANAFE

- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> – CENTRO GUIA (IFES-UGT) – FICNA – Fundación Empresa-Universidad (UN) – Unibertsitate-Gizarte Fundazioa (UPNA) – GAZTELAN – Granja - Escuela HARITZ-BERRI – INFOLAN (Fondo Formación) – SALESIANOS – EMPLEO Y DESARROLLO – TASUBINSA | <ul style="list-style-type: none"> – ANEL – MERKATARITZA GANBARA – GRUPOS O ENTIDADES LOCALES DE ACCION – AMEDNA <p style="margin-left: 20px;">2. Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren zentro laguntzaileak zein diren esatea berorren Zuzendaritza Batzordeari dagokio.</p> <p style="margin-left: 40px;">Iruñean, 1999ko urriaren 25ean</p> <p style="margin-left: 40px;">Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll</p> |
|---|--|

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Obren III. Ataleko buruaren kargu uzteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Obren III. Ataleko buruaren kargu uzteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 8ko 9 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Obren III. Ataleko burua den Raúl Sáinz Gómez ingeniariaren kargu uzteari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Sortu berri den zerbitzuak soilik hiru lagun izanen ditu: zuzendaria, atalburua eta lekuz aldatutako funtzionarioa. Zergatik ez zaio eman ahalmen gehiago?

Trenbide eta Aireportuetako Azpiegituren Zerbitzua bitarteko tekniko garrantzitsuekin hornituko da, goi-mailako hiru ingeniari horiek han soilik arituko direlako.

Langile kopuru murriztuko zerbitzua bada ere, horrek ez du txikiagotzen bere jardueraren garrantzia: RENFE, AENA eta Sustapen Ministerioarekin harremanetan egotea, Nafarroako azpiegitura hauek bultzatzeko, batez ere datozen urteotan.

Ezin da ahaztu, datozen lau urteotan eta soilik trenbide arloan, Sustapen Ministerioak, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan, ondoko hauen aurreproiektuak, proiektuak eta obrak hasi behar dituela: Iruñean trenbideak egiten duen ingurua kentzea, Abiadura Handiko Nafarroako Korridorearen lehen trenbide tartea eta trenbide geltoki intermodal berria. Halaber, Sustapen Ministerioarekin eta RENFErekin lankidetzan, “Nafarroa pasonibelik gabe” plana osotasunean burutu behar da eta ondorioz, Nafarroako bide eta errepideetan trenbideekin dauden 38 bidegurutze kenduko dira.

2.- Zergatik ez da deitu lekualdatze lehiaketa lanpostu berria betetzeko?

Azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretuak, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamendua onesten duenak, bere 8.1. artikuluan xedatzen du lekualdatze lehiaketa bidez beteko direla unitate organiko baten burutza edo zuzendaritzakoak ez diren lanpostu hutsak maila jakin batean kategorian gora egitea ez badakarte.

Egindako galderaren kasuan, ez da posible lekualdatze lehiaketa bidez lanpostua betetzea, ez baitago betetzeko lanpostu hutsik.

Beraz, Raúl Sáinz Gómez jaunaren lanpostuaren atxikipena aldatuko da arestian aipatutako azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretuaren 4.3. artikuluan eta apirilaren 1eko 165/1996 Foru Dekretuaren 3.1.a) artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Azken honek zehazten ditu Komunitateko Administrazioeko organoek eta bere erakunde autonomoek langileen alorrean dituzten eskurantzak, bai funtzionarioak lekuz aldatzea ahalbidetzen dutenak (zerbitzuen beharrek hala eskatzen dutenean) eta baita betetako lanpostuen atxikipena aldatzeko ahalmena ematen dutenak ere.

3.- Zergatik kendu da goi mailako titulua zeukan pertsona bakarra mila miliotik gorako inbertsioa kontrolatzen duen obren atal batetik?

Obren atal hori Herrilaretako ingeniari tekniko batek zuzenduko du. Lanbidean luzaz aritua da eta bere balioa aitortu izan zaio, beraz, bermatua dago ongi moldatu ezezik, bere eginkizunak ere ongi beteko dituela.

4.- Zergatik alferrik galdu bide ingeniari baten esperientzia baldin eta bere lanbide-bizitza guztia eman badu errepideetako obren zuzendaritzan eta trenen arloan sekula lanik egin ez badu?

Aipatutako bide ingeniariak bere titulazioaren eta ezagutza teknikoen mailako lanpostua beteko du, etorkizunean erronka handiak dituen alorrean, lehenengo galderaren erantzunean zehazten den bezala.

5.- Galdetu al zitzaien funtzionarioari lanpostu berria atsegin ote zuen? Galdetu al zitzaien lanpostu berria eraginkortasunez betetzeko gai sentitzen ote zen?

Adeitasuna edo begirunea kontuan hartuz, gomendagarria da Administrazioak, bere autolaketarako ahalmenen barruan, hartu beharreko erabakiari buruzko iritzia eskatzea ukituko duen funtzionarioari; baina aipatutako arauei jarraikiz, zerbitzuaren beharrek erabakitzen dute lekualdatzea egiten den ala ez, eta behar horiek Administrazioak baloratzen ditu.

6.- Gainotzeko funtzionarioei berregituraketaren berri ematean, halakoxeak bota ziren: "ezin da Olagueko sahesbideko zuzendaritza bertan beherra utzi", "eredu izan behar da", "Aldizkariaren bidez izanen duzu lekualdatzearen berri". Zergatik?

Galderan komatxo arteko esaldiak agertzen direnez, badirudi galdetzaileak zenbait elkarrizke-

ta pribaturen berri izan duela, eta haien edukia ez da ezaguna.

Dena dela, eta horietako bati buruz, alegia, "Aldizkariaren bidez izanen duzu lekualdatzearen berri", zehaztu beharra dago galdetzailearen galdetza 1999ko irailaren 27ko data duela (Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean 1999ko irailaren 28ko sarrera data) eta funtzionario horrek atalburu kargua uztea xedatzen zuen Foru Dekretua 1999ko urriaren 8ko 126. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela, alegia, hamaika egun beranduago.

7.- Funtzionarioaren zereginak trenen arloan berebiziko garrantzia baldin badu, zergatik gogoteldu oinarritzko soldata % 40 jaitsiz?

Kasu honetan, Administrazioeko beste ordezkapen bat baino ez da. departamentuaren berrantolaketa kokatzen da eta horrekin eraginkortasun handiagoa lortu nahi da hasi berri dugun legegintzaldi honetan.

Gobernu berria eratu zenetik hainbat aldaketa izan da Gobernuaren zuzendaritza orokor, zerbitzu, atal eta bulegoetan, eta hori beste bat baino ez da. Departamentu guztietan gertatu da goi mailako kargudunak kategoriaz jaitea, igotzea edo lekualdatzea, eta inoiz ez da zigor edo sariez hitz egin, baizik eta Administrazioa indartzeko beharrezkoak diren aldaketek.

Galdera egin duen foru parlamentarioa Gobernuko lehendakaria izan zen lau urtez, eta lehendakariorde eta kontseilari urte bete gehiagoz. Epe horretan hainbat kargu uzte, izendapen eta ordezkapen egiten ziren dudarik gabe. Bera agintari zela egindakoa zuzena zen, eta besteek egiten dutena zigorrak dira?

Kasu horretan, eta Departamentuan lortu nahi den eraginkortasunari begira, lehenengo galderaren erantzunean zehaztu den bezala, lehen mailakotzat jotzen da Trenbide eta Aireportuetako Azpiegituren Zerbitzu berriak egin behar duen lana.

8.- Egia al da nahitaezko lekualdatzea eta diruzehapena direla Funtzio Publikoaren Estatutuak hutsegite larriak zigortzeko ezartzen dituen zehapenetako bi?

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak, Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bateratua onesten duenak, bere 67.3. a) eta b) hizkietan dioenez, hutsegite larriek zehapen hauek izan ditzakete: enpleguaren etenaldia eta bostetik hogeita hamar egunera bitarteko soldata,

eta derrigorrezko lekualdatzea egoitza aldatzeko aukerarekin.

Kasu honetan, eta esan den bezala, Administrazioaren berregituratze bati dagokio eta ez du zerikusirik derrigorrezko lekualdatze edo zehapen ekonomiko batekin.

9.- Baldin eta bi hutsegite larriren pareko zehapenak gertatu badira berez, zergatik ez zaio aplikatu funtzionarioari diziplina- eta zehatze-prozedura? Izan ere, hori da Estatutuak departamentuaren esku uzten duen prozedura halako egoera bat modu arautu eta gardenez formalizatzeko, eta hori aplikatu ezean, ukatu egiten da defentsarako eskubidea.

Ez da egokia IX. kapituluan proposatutako kasuari abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aplikatzea, ezta ere Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko funtzionarioen diziplina araubidearen Erregelamendua, ekainaren 12ko 117/1985 Foru Dekretuaren bidez onetsitakoa, ez baita diziplina zehapenik aplikatu kasu horretan.

Aipatutako abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak atalburu eta bulegoburuak aldi baterako izateko aukera biltzen du, organo eskudunak izendatuta, eta baita organo berak izendapen hori atzera botatzea ere.

Azken batean, guztiz posible da, zuzena eta inola ere ez zehatzekoa, aldi batez atalburu izateko izendapena atzera botatzea, eta are gehiago,

legegintzaldi berri baten hasieran eta egitura organikoak aldatzerakoan. Beraz, administrazioaren jarduketa hori ez da administrazio zehapen gisa ulertu behar.

10.- Posible al da Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko funtzionarioek euren kontzientziari jarraikiz jardutea nagusikeriazko zehapen neurriak jaso gabe?

Galderari erantzun aurretik, esan behar da Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko funtzionarioek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko beste guztiek bezala, beren esku-bide eta betebeharrak bilduta dituztela abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan, II. tituluko VIII. kapituluan eta hura garatzeko onetsitako arautegian.

Horrenbestez, Raúl Sáinz Gómez jaunari ez zaio inolako zigor neurritik ezarri, eta beraz, beste funtzionario guztiek bezala, aipatutako arautegian bildutako eskubide eta betebeharrei jarraikiz aritu beharko du, bai gaur eta baita bihar ere.

Galderaren muinari dagokionez eta bere edukia kontuan izanik, ez dut azalpen gehiagorik emanen.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko urriaren 26an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

N-121 errepidean dagoen Tafallako gasolindegirako sarbidearen obrei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak N-121 errepidean dagoen Tafallako gasolindegirako sarbidearen obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1999ko urriaren 8ko 9 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du N-121 errepideak Tafalla-Azkoien NA-115 errepidearekin bat egiten duen bidegurutzeko zerbitzuguneko sarbideari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein fasetan daude obrak 1999ko urrian?

Jarduketa hori A-15 Autopistako Tafalla-Hegoaldea sarbidearen birmoldaketa integralari dago. Tafallako Udalaren eskariz, Audenasak burutu beharreko obretan barneratu zen (Tafalla Iparraldea/A15 sarbidearen birmoldaketarekin batera) 1997ko abenduaren 10ean sinatutako Kontzesio Kontratuaren aldaketaren bidez.

Jarduketa horren Eraikuntza Proiektua jadanik prestatuta dago eta jendaurrean jarria (1999ko ekainaren 11tik 1999ko ekainaren 15era).

Obra horrekin beste lotune bat eginen da: Erriberriko saihezbidearen eta N-121 errepidearen

elkargunean errontonda bat egin eta puntu horretan (errontonda berria) Azkoiendik datorren NA-113 errepidea ere batuko zaio.

Beraz, Tafallako zerbitzugunera errotonda horretatik sartu ahalko da, soilik Tafallako sarbide gisa geldituko den N-121 errepideko bideunetik. Horrela puntu horretatik (NA-121 bi norabidetan, NA-113 bi norabidetan) igarotzen diren ibilgailuak, eta baita A-15 Autopistakoak ere, zerbitzugune horretara sartu ahalko dira. Izan ere, gaur egun eta indarrean dagoen legeriari jarraituz, N-121 errepidean hegoalderantz doazen ibilgailuak bakarrik sartzen ahalko dira, eta baita modu berezian, NA-113 errepidean doazenak ere.

2.- Egin al da, hori baino ez bada ere, proiektua?

Aurreko erantzunean adierazi den bezala proiektua prestatu ezezik, jendaurrean ere paratu da eta behin betiko onespeneren fasean dago.

3.- Nafarroan trafiko gehien duen errepideetarikoa bat dela kontuan hartuta, noizko kalkulatu da bukatuko direla errepide horretako obrak?

Obraren aurrekontua eta kontrataziorako beharrezko epeak kontuan harturik, bukatuta eta zerbitzuan egon beharko du datorren urteko azkeneko hiruhilekoan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko urriaren 25ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.000 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 140 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 175 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--